

Α α Β β Γ γ Δ δ Ε ε  
alpha beta gamma delta epsilon

txalorik ez,  
arren  
HARKKITZ GAND

Ζ ζ Η η Θ θ Ι ι Κ κ  
zeta eta theta iota kappa

# alfabeto mutua

Λ λ Μ μ Ν ν Ξ ξ Ο ο  
lambda mu nu xi omikron

DANEL LAUZIRIKA

Π π Ρ ρ Σ σ/ς Τ τ Υ υ  
pi rho sigma tau upsilon

Φ φ Χ χ Ψ ψ Ω ω  
phi chi psi omega



BOOKTEGI



# BOOKTEGI

*Guztion liburuak, guztiontzat*

[booktegi.eus](http://booktegi.eus)



# GEURETIK SORTUAK



UDALBILTZA

DANEL LAUZIRIKA

# alfabeto mutua

# Marmarra

BATZUEI doinuak, kantik, soinu-bandak itsasten zaizkie; niri tinbreak, ahots korden dardara partikularrak, tonuak eta horiei itsatsitako zalantzak, irmotasuna, herabetasuna, baldarkeria. Ezin dut saihestu. “Eh” simple bat nahikoa zait berau ordu betez murtxikatzeko, ñir eta ñir. “Eh” guztiak ez dira berdinak, “juju” gehienak ere ez. “Eh” batzuk agresiboak dira, batzuk adeitsuak, “eh” sakona eta “eh” eroria, “eh” hantustea, harroa, “eh” haserrekorra, “eh” eroso, harridurazko “eh”, buztinezkoa, gomazkoa edo “eh” balioaniztuna. “Eh” nagia dut gustuko, alfer landua, aberatsena ez bairik gabe, jendartean bizitzeagatik ezaxola adierazteko egunero-egunero harribitxiak eskaintzen dizkizun “eh” horietakoa da.

Ahotsen jolasak badu adikziotik. Zehaztasun nahiak hotsa behin eta berriz saiatzera eramango zaitu, eta ez da dudarik biribiltasunaren bilaketa horrek aberastu egiten zaituela pertsona gisa. Ez hori bakarrik, aldi berean zehaztasunak ehizatze gaitasun ikaragarria moldatzen du zure baitan. Hortik aurrera, “eh”, “ep”, “epa”, “aupa”, “ei”, “uuu”, “fufu”, “aja” guztiak ez dira berdinak. Eta ezin dira izan, edozein semiologo zaildu onartuko lukeen bezala. Bere desabantailak ere baditu, ahots harmonikoak gorrotatzen ikasten duzu: bizitza bezala, seme-alabak bezala, egunsentiak bezala, ahotsak ere ezin dira perfektuak izan.

Doktorego tesiaren idazketan eman nuen urtebete luzean garatu nuen hots eta ahotsekiko zaletasuna, eta ordutik bigarren azal bilakatu. Tesiak ez zeukan ahotsen polifoniak sortzen zidan dardarizoarekin zerikusirik, Buenos Airesko Denak Bat Euskal Etxearen eta Cordobako Gure Etxearen arteko azterketa konparatuak ahotsarekin zerikusirik ez duela esan daitekeen neurrian behintzat, izan baduelako: ezin esan ahotsak eta Argentinako euskal etxeak harremanak ez daudenik. Argentinako euskarak ahotsarekin zerikusirik ez duela esatea bezalako astakeria litzateke hori, Buenos Airesko azentudun “kaizo” horrek ahots korda jakin batzuk eta motibazio zehatz bat izango ez balitu bezala. Badu zerikusia, eta asko gainera. Guztiak du zerikusia ahotsarekin, denean dago ahotsa, baita isiltasunean ere, ez dagoenean ere egon badago.

Herri honetan nagoenetik, baina, ahotsak lausotzen ari zaizkit, mututzen. Egia da Zko eta hiriko soinuak ez direla berdinak, hiriko zarata kaparradak epe ertainean hotsak ez bereiztera zaramatzala, baina herri berezkoa zaien isiltasun dosi handiagoak hotsak mututzera egiten du, soinua erraz bereizi beharrean desagertzera. Ordu gutxi batzuk badaramatzat ere, aise igarri dut “kaixo” soilak “kaix”erako norabidea hartzen duela, azken bokalek eta kontsonanteek desagertzera jotzen dutela, eta ez da ahoskera kontua. “Eh” klasikoak “h”a galtzea ez da normala. Auziaz galdetuta, Sarak bidezidorretik jo du, ahoskera kontua omen da dena, ea zenbat urte daramadan hiritik irten gabe. “Eh” lausotuarena arin konpondu du lagun filologoak: balitekeela oraindik garbizalekeriak irautea EHko muturren batean, “h”aren polemikak hankak luze izan zituen urte askoan. Ez diot sinetsi, hori baino azalpen sakonagoa behar du, hemen hotsak lehenago amaitzen dira, bukaerara iritsi nahiko ez balute bezala. Ez dakit horrek Pirisen kontuarekin zerikusi zuzenik duen, baliteke baietz, baina oraingoz ez dut sobera kezkatu nahi. Bihartik aurrera ekingo diot Piris bilatzeari, orain hemen hotsetan jarriko dut arreta, baliteke nahi gabe haren doinuetara eramatea.

ZUZENEAN ezagutu ez zuten nire belaunaldikide askorentzat Hertzainak euren bizitzako soinu banda den bezala, “eh”, “uh”, “eje”, “kia”, ahots kordek eragindako ezein soinu da nire banda. Gogoia atximurkatzeko erregaia. Sasoi batean neuk ere izan nuen musika beharra. Kañeroa, zenbat eta bateria kolpe gehiago hobe, eta mezuduna, injustiziaren kontzientzia eta salaketa gogoia itsastekoa. 1990eko hamarkada bukaeran ez zen bestelako musikarik gu izan ginen ikastolakumeon giroan; technoa eta patxanga bestelako hemisferioetako doinuak ziren, besterik gabe. Guk geuk hautatutako doinuak ziren geureak, gazte gisa mugiarazten eta ezberdintzen gintuztenak. Konprometituoi zegozkigunak. Ideologiaren marra gorriak gorabehera, gorputzak baimentzen zigun musika mota bakarra ere bazen, burua gora eta beheara mugitzeko gure trebeziarekin bat zetorrena. Txosna ixteko sasoiaren Alex Sarduiren robotarena egitearekin konformatzen ginen, 06:00etatik 07:00etarako mozkorrean, hautsezko kalimotxo eta bitsezko garagardoen edalontzi izandakoen krakadek girotutako lur gainean. Mundutxo hartan Piris zen lurrikara emankorrena. Galtza motzak, Brasileko selekzioaren elastiko sepultureroa eta amerikana soinean, ACDCren bertsio txosneroa bizarrak, letrek eta ahotsak egiten zuten gutako bat. Ahotsak batez ere. Tximak ordenatzeko kepisaren azpian goratzen zen ahots hark ezein melodia jarraitzeko ezintasun kronikoa erakusten zuen behin eta berriz. Abeslaria zen, hori zen onena, horrek liluratzen gintuen. Ahots asinkroniko uher baldar zail horrek bete egiten gintuen, jipoitu astindu lehertu eta berriz zutitu. Boz harmonikoari kosk. Eta letren egiak, ukabilak besteko egiak garuna inarosten eta jaikitzen, lur jota zegoena zutitzen laguntzen. “Urraduraz urradura ahaztu ezak erredura, talkarik talka har ezak branka”.

Heziketa sentimentalaren zutarri izan genuen galduta omen dagoen ahots hura. Bazuen terapeutikotik gu guztiontzat. Aske egiten gintuen, 600 presotik gorako herria izan daitekeen bezain aske. Askatasunetik gatibutzen gintuen. Zenbat didar oraindik gorpuztu gabeko bozetan. “Ez da aztia izan beharrik zer falta zaizun asmatzeko, lagun/herria defenda dezagun”. Eta horretan aritu ginen, batzuk gehiago besteok gutxiago, ikasketek zaletasunek maiteminek batzuk gehiago beste batzuk gutxiago zizelkatu gintuzten arte. “Kuadrilla, arima umezurtz eta hila”. Orain badugu whatsapp taldea.

Orain dela bi astera arte, urteak eman ditu Pirisen ahotsak nire hotsen orbitatik kanpo. Nahi gabe iritsi nintzen beragana, sare aurreko asperdura une horietako batean bere izena azaldu eta wikipediarako lotura klikatuta. Barrenak astindu zizkidan “abeslari ohia” etiketak, ordura arteko asperdura ezinegon bihurtu zimikoak.

Zerbait entzuna nuen alde zurretik, baina ez nekien kontua hain larria zenik. Suposatzen nuen musikariek hain gustukoa duten kontu horietako bat izango zela, urtebeteko atsedena, impasse bat iragarri eta ondoren beste talde bat sortu, hasierako banda berreskuratzeaz bat on the road jarri eta azken atrakua biribildu... musikariek kontu horietako bat. Soinulariok bestelakoak gara, batez ere joera artistiko handinahirik gabeko soinuazale xumeok. EHko punkietan punkiena ez nuen horrelako izar mugimenduak egiten irudikatzen, laster ahaztu nuen gaia.

Nolanahi ere, orain dela bi asteko arratsalde aspergarri hartan kontuak bestelako jira hartu zuela ohartu nintzen. Gazte sasoioko idoloak zazpi urte daramatza oholtzarik zapaldu gabe, 2014ko Hatortxu Rocketik. Piris mututzeko gaixotasun larriren batek beharko zuen izan, afonia edo disfonia kronikoren bat, ahotskorden betiereko paralisia, polipo kabroi erraldoi horietako bat, minbizia. Edo guztia batera. Bestela ezin nuen ulertu Piris isildu izana. Ez da isiltzekoa, isiltzeko ezgaitasun fisiko nabarmena du, isilik egoteko ahalmen urria eta borondate urriagoa. Ezin du isilik egon.

Asperduratik esnatuta, hurrengo egunetan lauzpabost dei egin nituen lagun musikazaleen artean. Azken urteetan flojo zebilen, ez apalduta, sekula ez delako apala izan, baina bai indarge, josaus Eñaut aspaldiko

kontua da, bere azken letrek ez zuten hainbesteko indarrik, bai, urteak daramatza isilik, ez du sekula ahots onik izan, baina azkenengoetan ez zen doinua zaintzeko gauza, egia da inoiz ez zaiola hori inporta izan, baina sasoi batean behintzat saiatu zen itxurak egiten, nekatu egingo zen beste guztien antzera, letrek ez zuten lehen besteko indarrik, ikusi nuen azken kontzertuan zuen atxurrearekin oraindik bixamonagaz egongo da, azken aldian gogogabe ikusi nuen, ez dut galdetu zertan dabilen baina inork ez daki ezer, bestela jakingo nuen, isildu egingo zen besterik gabe.

Piris besterik gabe isiltzea besterik gabeko zerbait balitz bezala, EHko rockeroetan punkiena eta punkienetan punkiena isiltzea eta “besterik gabe” esaldi berean erabiltzea konturik normalena bailitzan. Beste barik. Arreba zaharrena jarri nahi izan nuen balizko gaixotasunen baten arrastoan, baina zakutik hartzen bidali ninduen, Osakidetzan lan egiteak ez zuela esan nahi gaixo guztien espedienteetarako sarbiderik zuenik, eta hala izanda ere ez zukeela datu pertsonalak babesteko legedirik urratuko, are gutxiago ni bezalako mozolo bati emandako ero-haizeagatik. Ezagun foniatra bat ere galdekatu nuen, arrastorik ez.

ATZO ANEK DEITU ZIDAN, ez emateko buelta gehiagorik Pirisenari eta itzultzeko hirira, bertan egonda opor egun batzuk hartzeko aprobe txatu eta itzultzeko etxera, Mendi kirioetatik dagoela, ez duela ulertzen zertarako egin dudan Zrainokoa hainbeste urtetan entzun ez dudan musikari baten atzetik ibiltzeko. Lagunaren esanetan artista guztiei gertatzen omen zaie goiz ala berandu, saihetsezina zaie krisialdia, ezin sortu eta ahotsa galtzea. Eta burua, zenbait kasutan. Batzuek baino ez omen diote buelta ematen ataka horri. Beste asko isildu egiten dira, eta horietatik gogorrenak edo trebeenak soilik jarraitzen dute sormen betean mutualdiaren erdian. Anek badaki kontuaz, Salinger delako bat aipatzen zuen une oro. Vila-Matas ere bai, hark asko idatzi omen du mututasun mota horretaz. Bartleby delako bat ere badago.

—Agian Pirisena horrelako mututasuna izan daiteke.

—Edo ez, ez du zertan.

—Nola ezetz?

—Besterik gabe, Eñaut, agian ez duela sortzen jarraituko eta ez dela itzuliko.

—Nola esan dezakezu “besterik gabe”? Ane, ez da edozein, Piris da! —mutualdia, mututasuna, isilik egoteko eskubidea, sortzeari uzteko premia... gero eta urduriago nengoen—. Eta desagerrarazi badute?

—Hala bada berriz agertuko da, kontra egin ohi dio denari, lortuko luke ur azalera irtetea—gogo handirik gabe jaulkitako hitzak, aise igarri nizkion telefono hariaren bestaldetik—. Berak erabaki badu desagertzea zailagoa da kontua.

—Baina Ane, argi dago berak ez duela desagertzea erabaki. Arrats Piris da, joder.

—Ez egon horren seguru: EH aldatu egin da, azken hamar urteotan testuinguru politiko eta sozial guztia hankaz gora dago... edo behar bezala ordenatua, begiradaren arabera. Pirisen jarraitzaileak jada ez dira Jarrain militatu eta aldarrikapen gosez zeuden gazte sutsu haiek. Orain guraso dira eta hipotekak dituzte. Lehentasunak aldatu egin dira, eta EHk beste errealitate bat bizi du orain.

—Baina Jarraiko haiek bakarrik al ziren gazteak? Oraingoak 80 urterekin jaiotzen dira, ala zer? Orain ere egongo dira gazteak, diot nik... Ez dut sinesten oraingo gazteek ez dutela kritikotasunik. Gazte iraultzaileak dauden tokian, Pirisen mezuak beti izango du tartea.

—Edo ez —lagunaren tonua gero eta jasanezinagoa zitzaidan—. Oraingo gazteek beste lehentasun batzuk dituzte, beste begirada bat. Oraindik ere badaude gazte eroak EHn, baina gutxiago dira.

—Beti izan dugu masa kritiko potentea, ekimenez eta irudimenez betea. Kalea gurea da, joder.

—Eñaut, zenbat denbora da zure ondoko errealtateari erreparatu ez diozuna?

—Zer galdera klase da hori? Egunero irteten naiz kalera. Bale, konturatu naiz jendeak ez darabilela zapi palestinerik, baina aizu, arropa kontua beste gauza bat da, modaren apetak, beste barik.

Nor bere lubakitik agurtu genuen elkar. Berriz eskatu zidan etxera itzultzeko, Mendik ez duela ezer ulertzen, ez dela ondo pasatzen ari. Zra ekarri nauena ez dela apeta hutsa erantzun nion, lehor. Agur, musu bat.

ALFABETOA irauli egiten da herri honetan, itzulipurdikatu. Zren auzo da A, baina Akoek beti aldarrikatuko dute Ak sortu zuela Z. Hala dago Zren sortze-agirietan, baina orain Zko parte da A, beste auzo bat. Akoek euren herrizat badute ere, Z da udalburu; ondorioz, azkenarentzat sona. Zk, gainera, mugakide ditu Z kostaldean eta A barnealdean —A horrek beste A bat ere badu mugakide, baina hori beste historia bat da, ez diot berez konplikatu den letra-zopari ozpinik botako—. A eta Z, Z eta A, alfabetoko bi muturrak herri berean, eta muturka beti, Ak sortu zuela Z, Zk irentsi zuela A bestela mapetan ere ez litzatekeelako azalduko. Betiko kontuak, sokamutur sinbolikoaren hariak belaunez belaun hedatzen.

Egia esan, Zk ez dauka batere erraza. Alfabetoko bokal eta kontsonanteen zerrendari begiratu azkar bat emanaz gero, laster ohar zaitezke bere kontrako konspirazioaren mapa argia bezain astuna dela, etxe barnetik hasita. Zren barruan lau A daude, A, AG, AB eta beste A bat, edo AA, gauzak errazte aldera Ak deituko dioguna. A horietako bik batasun sinbolikoa osatzen dute, Goikoa eta Behekoa, eta berez Zk nekeza badu horiek gertutasunagatik erakartzea, are gehiago kostako litzaioke aaidetasunen saltsan barneratzea; hala eta guztiz ere, jakina da taktika kontuetan banaezin dirudiena banatzeak garaipenerako lehen atea zabaltzen duela. Baina ez du erraz Zk, Aaide Nagusi horien guztien aliatu naturalak baitira udalerriko B bakarra eta bi Eak, En eta Et. Jakina da, gainera, historikoki I letra Aren aldera lerratu ohi dela, izan gertutasunagatik, tradizioagatik, edota funtsean bederatzigarrenetik lehenengora hogeita zazpigarrenera baino tarte laburragoa dagoelako, eta sarritan komenigarriagoa da ibilitako bidea desibiltzea ibiltzeke duzunari ekitea baino, batik bat tentuz jokatzeko garaiak direnean, oinak lurrian izatekoak. Eta Zk bi I ditu, Ib eta Ir. L bat ere bai, eta alfabeto ordenatuaren logikak Zko L Atarrekin lerrokatzea eraman beharko luke, baina bizikidetza demokratikoaren izenean neutral jokatu izan du Lk, bizikidetza horren kultura errotuagatik zein auzo-herriko Aren eragin kultural nabariagatik. Laburbilduz, izena, pisua, bainuetxea, dirua eta udaletxea bere alde izanagatik, Zk aliatu bakarra du barne-hemisferioan, T, aliatu txiki bezain leiala guda alfabetikoetan.

Gainera, esan beharra dago geostrategikoki akats nabarmenak egin izan dituela Zk, esaterako Palestinako herri guztien artean B letrarekin hasten den bat hautatzea senidetzeko, eta ez R, T, Q edo S. Hala eta guztiz ere, alfabeto gudan garaipen gogoangarriak ere baditu Zk, ezin baitezakegu ahantz Z C izan zela urte askoan; lehen begiratuan atzerapausoa irudi lezakeena zegokion tokira itzultzea baino ez da, Z ez baita alferrik euskararen arnaguneetako bat.

Auzo herriekin ere ez du zorte hoberik izan. Zren herrigunea erdibitu eta alderik alde gurutzatzen duen errepede nagusiak lotzen ditu kostaldea eta barnealdea, beste Z eta A. Normala ere bada kamioiz, automobilerik, txirrindulariz, furgonetez enpo doan errepede horrek Zrak umoretzartzea. Nola ez dira ba



haserretuko, errepide horrek egunero gogoratzen die-eta alfabeto gerra, Z eta A, A eta Z. Iparraldean, gainera, Z aaide eta aliatu naturalaz gain, A bat eta D ditu mugakide. Ekialdean beste A bat dute Zrrek, eta hegoaldean E eta A maiuskula, AA dei dezakeguna, edo AAAAAAAAAA, nahieran; etsai sinboliko argia, Zrrak A horren eraginak ez azpiratzeko eginahaletan dira mendeetan zehar, alfabetoko galiar eroak bailiran.

AZKEN BI ASTEETAN ez dut ia lorik egin, gosea flakatu zait, tabakoak zapore txarra du. Ez da jakin nahi hutsa, premia fisiko bihurtu zait Pirisi zer gertatu zaion jakitea. Hil ala bizikoa zait inoiz sobera izan ez dudana lasaitasuna berreskuratzeko. Orain badakit bide onetik nabilela, hasierako bihozka dek bazutela egiatik, Pirisek ahotsa galdu duelako hori faltsua dela, bere ahotsa desagerrarazi dutela. Ezin zitekeen bestela izan, punkietan punkiena ez da isilduko. EZIN DA ISILDU. Argi utzi zuen 1999an Isiltasunari Stop abestian: “Ez utzi isiltzen, haiek partida irabazten / isilik gauden minutu oro kabroiak irabazten / Zentsura, morroi zikin hura / Zentsura morroi zikin hura / Zentsura, morroi zikin hura”.

Sarak gaur aipatu didanez, Piris ez omen da ustez ahotsa galdu duen bakarra. Fermin Muguruza ere antzeko trantzean omen dago, zurrumurrus beteta dago twitter. Iturri guztiz fidagarria da laguna, euskarazko kulturgintza barrutik jarraitzen duen kultureta aktiboa. Mututze horren harira whatsapp talde ezkuturen bat ere sortu ei da apustutarako, hurrengo mutuak zeintzuk izango diren asmatuz gero 200 euroko botea patrikaratu daiteke.

Normal azaldu nahi nuen lagunaren aurrean, baina beste zimiko bat eragin dit Ferminenak. Gaztetako idoloa bezain mutuezina iruditzen zait Muguruza zaharra; are gehiago, Piris baino koska bat gorago kokatuko nuke. Zer beste froga behar dute Anek eta Mendik EHN zerbait potoloa gertatzen ari dela sinesteko? Lagunak diost bost bertsolari ere mututu direla azken bost urteotan, urteko bat, baina horien mututzeak txiolarien ikerketapean daudela oraindik, ez omen dute arinki jokatu nahi. Mututasun horrek ba omen du bariante arraroren bat ere: idazle eta zutabegile batzuk ere mututu dira azken urteotan, ez da haien inongo arrastorik, ezta twitterren ere; azken hori susmagarria da oso.

Zerbait arraroa gertatzen ari da euskalgintzan. Sasoi batez Euskal Etxeak utzi eta beste euskal etxe batzuetan barneratzeko tenorea da. Denbora kontua da artista famatuenen herriak mutu-ehiztariz betetzea, baina aitzindari izateak aparteko aho-zaporea uzten du.

HERRIAN HAMALAU HOTEL eta garaiko airbnb piloa izatetik gaur egun herriko kaskoan ostatu bakar bat ez egotera iragan da Z azken 50 urteotan. Bainuetxearen garai doratu idilikoak gainbehera hasi zirenean hotelek ere jo zuten erreka, ur termaletatik haratagoko hondoa zulatuz, gezatik gazira gozotik iraganda. Hotelak eroriz joan ziren pixkanaka, bata bestearen atzetik. Arima bikiek soilik diraute zutik, Arocena eta Artetxe gotorleku burumakurrak. Arrotzaren begietara Zren gainbehera isla dezaketen porlanezko panel informatibo erraldoiak baino ez dira eraikin berbalapiko horiek. Sargoripeko ordu mortuetan elkarrekin hitz egiten aditu ditut, garai joanen dirdira beste hizpiderik ez duten indiano edo puntista jubilatuen antzo. Handik kilometro erdira dagoen bainuetxe fantasmagorikoak ere ez du irudi hori ezabatzen laguntzen. Herrian dudana kontaktuak diost gainbehera itxura itsatsi zaiola Zko herriari. Ezin kendu gainetik, Chimbo xaboiz behin eta berriro igurtziz gero ere uherrak hor dirau igurzlearen begietara. Lehen begiradekin kontuz

ibiltzeko esan dit Margak, topikoa dela Zren etsairik handiena. Herri bizia omen da, bai kaskoan, baita auzoetan ere, Z ez baita alferrik terrenez probintziako herririk handienetarikoa. Horrek zailtzen omen du ikuspegi globala, Z kaskoa baino askoz gehiago delako, baina aldi berean kaskoa bera ere Zren topikoa baino puska aberatsagoa da. Berak erraztuko omen dit egonaldia. Hala deitu dio, egonaldia, eta piloa gustatu zait, zaila delako nire txoro-bidaia honi izena jartzea. Horregatik eta egonean egoteko asmoa dudalako, Piris jopuntuan izan arte behintzat.

Margak badu nire asmoen berri, Sarak azaldu zion zertara natorren. Piris gutxi azaltzen omen da herrian, eta adeitsu jokatzeko kasu egiten diotenekin. Norbaitek musika kontuak aletzen badizkio, baina, gaiaz beste egin edota atoan egiten du alde, hori da lagunak denbora tarte laburrean bildu ahal izan duen informazio guztia. Ondoren isildu egin gara biok, Erdikaleko pintxo-pote giroan normalena nor bere baitara biltzea balitz bezala. Eskertu egin dut.

Euskal Etxeen ikertzaile bat eta bainuetxeko historialari bat, orpoz orpo mututasuna praktikatzeko. Paisaiarekin mimetizatzeko agindua eman zidan Jokinek, herritarrek egiten dutena egiteko eta ez agertzeko bilbotar gisa, haren esanetan hala bainaiz eguneko 23 ordutan. Lagunak curriculum zabala du herri txikien kontuetan. Haiek egiten dutena egin, haiek bezala hitz egin. Eta hitanoan ari badira, zer. Uiiiiiii, hori salbuespena da; kasu horretan ez sartu, baina beste guztian bat egin paisaiarekin.

Modu mistoan agurtu dut laguna, hitz soilak eta isiltasuna tartekatuz. Ara igotzeko tenorea dut, apopilo nagoen landetxean afaltzeko asmoz. Hirugarren eguna dut eta Ak bailara zeharkatzen duen Ztik Arako bidea etxekotua dut dagoeneko: Ereio-Berria, Txotxapaindo, Ezenarro, Ezenarro Azpikoa, Igartza... guztiak zaizkit ezagunak, paisaiarekin ondo mimetizatzearren seinale. Pirisek ere hurbil behar du, behin desagertzekotan naturara joko zuen kalekume horrek.

Hala ere, ez dut espero Piris egun batetik bestera agertzea. Eta nahiago. Nola hitz egiten zaio mutu bati? Nola komunikatu naiteke mutu batekin harekin mututik mutura mimetizatuta eta aldi berean beharrezkoa zaidan informazioa jaso? Zaila da kontua, baina agian mututasunaren ertzak ezagutzeko eta zorroztea da gakoa, soinulariok ahotsekin bezala. "Ah" serioa eta "ah" monotonoa berdina ez diren bezala, mututasun iheskorra eta mututasun baikorra ezin dira gauza bera izan.

\* \* \*

ZK denbora du bere alde. Zehatzago esateko, erlojuak. Gai honetan, baina, Z diodanean A, AB, AG, Ak, B, En, Et, Ib, Ir, L, T eta Z bera, guztiak lotzen ditut zaku berean, baita bainuetxeko Ba ere. Erlojuekiko aparteko zaletasuna dute herri honetan, debozioa ia.

Herri bat ezagutzeko ez dago astegunetako goizak eta arratsaldeko lehen ordu mortuak habitatzea bezalakorik, orduan konturatzen baitzara herriaren dohain eta traumez. Niri erlojuez hitz egiten didate. Puntueltasunarekiko obsesioaren usaina hartu nion Santa Engraziako erlojua ikusi ote nuen galdetu zidan hirugarrenari; aurretiaz, Zko erloju mekanikoa ikusteko aholkatu zidaten lautan. Baina kontua hori baino larriagoa da. Herrian nagoenetik lau aldiz galdetu didate zer ordu zen, eta lauretan alde egin dute mugikorra poltsikotik ateratzen ikusi orduko, presaz nonbait. Erlojugile itxura hartu didate, kanpai-jole bakartiarena ez esatearren. Halatan, udaletxean sartzea beste aukerarik ez dut izan.

—Ederra da, ezta? Elizako erlojua da. Orain dela lau urte-edo tximista batek suntsitu zuen kanpandorra, eta orain erloju elektronikoa dago bertan.

—Eta, zer egin zenuten bitartean?

—Denborari joaten utzi, zer egingo genuen ba! Bi urtetik gora egon ginen kanpairik entzun gabe —denbora horren pisua nabari zaie ondoan dudan adin ertaineko gizonaren hitzei.

Hasieran ez diet aparteko garrantzirik eman igerilekutik etorri berria dirudien kafezalearen hitzei, baina pentsatzen jarrita gogorra behar du izan. Badago aldea herri osoan ordu erdiro dangak entzutera egotetik ordu erdiz behin ezer ez aditzera, batez ere isiltasuna nahi ez duenarentzat. Zentzu horretan, Zrrak isiltasunaren aurkako aliatu paregabeak izan daitezke.

—Talibanen liderrak sarritan esan izan ziek yankiei: “Zuek dituzue erlojuak, baina guk dugu denbora”. Eta guk biak ditiagu, erlojuak eta denbora.

Solaskidearen hitzok entzunda, erabat zorabiatuta jaitsi ditut udaletxeko eskailerak. Gurpil inperiala, aingura, pendulua, orratzak, bestelako engranajeak kaskarrean kolpeka ari zitzaizkidan. Are gehiago jipoitu naute azken maila jaistearekin batera hamabiak puntuan jotako kanpaikadek. Behin kalera irtenda, eskertu egin ditut Xabier Silveira dirudien tipo batek andaluz doinuz zuzendu dizkidan berbak.

KOTXEA ostatuan utzi, eta galtzadatik jaitsi naiz Atik Zra. Miresgarria da A, dena du idilikotik: ederra, adeitsua, lasaia, menditsua. Topikoari men eginda, naturarekin bat sentitzen zaren toki horietakoa da. Egia esan, dena du topikotik: eliza handiaren itzal lausoa, etxe eta baserri gurako txaleten batek inguratutako plaza, umeen hotsak frontoirako joan-etorrietan, soziedadea, taberna, gurasoen hizketaldi patxadatsuak eta haurren barre alaiak zuhaitzen abaroan, soloan lanean ari den baserritarraren diosala, Santa Engraziarako bidean hurbil sentiarazten zaituzten baserriak, txakur zaunkari pelmegirik ez... eta oroz gain lasaitasuna, hizki larriz markatutako patxada, LA SAI TA SU NA. Topikoaren biribiltasunaren atzean Ak badu etxean sentiarazten nauen zerbait. Hori bai, kalekume honentzat ederregia, isilegia aukeran.

Naturaren lasaitasun horrek urduritu egiten nau. Gainera, hemen daramatzadan egunotan ez dut lortu arrotzari zor zaion begiradatik askatzea. Begirasun horiek urduritu egiten naute, seguru nago badakitela Pirisen oinatzen atzetik nabilela. Haien bakea ez apurtzeko seinale isilak dira.

Beraz, kotxea ostatuan utzi eta oinez jaitsi naiz Atik Zra. Oraingoz erdigunearekin mimetizatzen mugatuko naiz. Eraikin segida ez da handiegia, baina adore gehiago ematen dit. Lasaitasunaren kolorea usnatu nahian jaitsi dut galtzada. Ak-ra iritsi ahala, zakurrak normalagoak dira, zaunka egiten diote arrotzari. Zn barneratu aitzin, zigarro bat piztu dut bideko hirugarren baselizaren aurrean, 1970eko hamarkadan auzolanean konpondua omen. Hirian auzolana Jaurlaritzaren eslogan bat da, baina hemen Piris gordetzeko modua izan daiteke.

San Joan pasatu eta eraikin hiztunak ezkerretara lagata, herrian barneratu ahala ahots naturalek hartu naute, horiez gozatu dut Gesalagan barna. Poztasun neurtuko “Aupa hi” pareta, harridura tartekatu nahi zuen asperdurazko “eh” bat, egunerokotasunez betetako “aizan”-a. Ikerketarako behar dudan erregaia. Bero itzelari itsatsitako lasaitasun astunak hartua zuen kaskoa. Berandu samar argitzen du Zn, batz bestea An baino bi ordu eta erdi geroago, eguzkiak Zn jartzeraino alfabeto osoa igaro beharko balu bezala. Egia esan badu lana Zko udalerrira osoa argitzen, eta antza bukaerarako uzten du kaskoa. Auzoetako biztanleak pozik uzteko udalak hartutako erabakia izan daiteke, baina bozkei erreparatuta ez dirudi zentzuzko estrategia bozkatzaileren hiru laurdenak 10:00ak arte behe-lainopean izatea.

Jendea erosketetan, farmaziarako sartu-irtenak, supermerkatuak, harategia, ile-apaindegia. Laranja ukituko lasaitasun berdexka. Portalen sartu eta berehala dago itxura batean informatika, argazki eta paper

dendaren arteko hibridoa izan daitekeena. Ondo erreparatuz gero, bisitaria konturatuko da Turismo Bulegoaren aurrean dagoela. Ekainberriko interpretazio zentrorako sarrerak saltzen omen dituzte, baita Lili jauregiko bisita gidatu antzeturakoak ere. Arin eta ziplo esateko, euskal artistak mututzen dituen erakunde batentzako tapadera ezin hobea. Zeinek jarriko du zalantzan kulturaren alde ari den erakunde bat? Erakundetutako kulturak hamarnaka errezelo pizten ditu gurean, baina Historiaurretik zein Erdi Arotik datozen hotsak neutroak dira; ez dute kultur azpiegitura arranditsuen zalapartarik pizten, ondare biltegi hutsak dira, aproposak sator lanerako.

—Bisita gidatu horiek ondo daude, baina eskaintzen al duzue bestelako zerbitzurik?

—Udalerriko informazioa (mapak, ibilbideak, non lo egin, non jan), eskualdekoa, Euskal Kostaldeko Geoparkearen gainekoa...

—Bai, bai, baina bestelakorik?

—Barkatu, ez naiz lehenago konturatu, esperientziez ari zara. Ekain Abentura dugu. Historiaurreko ehiza zirkuitua eskaintzen dugu, oso baliagarria Sastarrain aldeko landaredia gertutik ezagutzeko.

—Historiaurrean bezala margotzen ikasten da, baita sua egiten ere —lankidea babestera hurreratutako langilea ez da batere sinesgarria.

—Ondo, ondo, baina nik zerbait sakonagoa nahi dut, beste esperientzia mota bat.

—Barkatu jauna, baina herrian ez dugu horrelakorik. Lehen eskualdean bazen horrelakoren bat, baina...

—Nola, ez duzuela herriko kultur sortzaileen tailer eta sormen-tokietarako bisita-gidaturik?

—Ez, hori ere ez daukagu.

—Nola “hori ere”?

—Ezer ez, jauna.

—Ez da batere ideia txarra, jauna. Uztapide bertsolariaren jaiotetxea egokitu dezakegu bertan bisita gidatuak egiteko. Bisita hasieran, atarian, megafoniatik bere bertso ezagunenak jarri eta... —egia azalerazteko oztopo zait bigarren langilea, une erabakiorretan azaltzen da.

—Are gehiago, herriko bertsolariak girotu dezakete bisita. Udalari proposa diezaiokegu, bisita gidatuetan aitzindariak gara.

—Barkatu, baina bertsolari horrek ere galdu al zuen ahotsa?

—Ahotsa galdu? Guk dakigula ez, beharbada noizbait katarro handiren baten ondorioz.

—Garai bateko bertsolariak beste klase batekoak ziren, mikrofonorik gabe eta ahots sendoz abesten zuten horietakoak —hitz batetik bestera sinesgarritasuna lurrera erori zaio bigarren langileari.

Ekainberri eta Lilirako sarrerak eskuratuta alde egin dut bertatik. Galdeketak nire susmoak areagotu ditu. Onak dira asko hitz eginda ezer ez esaten. Ez diet apartekorik atera, baina agerian dago zerbait ezkututzen dutela: galderak egiten dagoena erotzat hartzeko modu hori... Kontuari kiratsa dario.

Bitartean, mutuen zerrenda loditzen ari da egunez egun. Sarak diost Berrian egunero zutabeak idazten dituzten bi kulturgile erori direla azken astean, zutabeak mutu eta publizitate moduluz mukuru. Txiolariak, baina, lasaitasunerako deia egin dute oraingoz, baieztatzeke dagoela mutuberriak diren ala ez, zutabegileen aldian aldiko aldaketa izan litekeela. Kontuari kiratsa dario.

EGUNEZ EGUN normalagoak dira zuzentzen dizkidaten “kaixo” guztiak, pixkanaka beste herritar bat bilakatzen ari banintz bezala. Ikertzaile senak ez fidatzeko diost, segada bat izan daitekeela, baina ilusioa egiten dit “kaixo” horien gero eta tonu baikoragoak.

Zrrak ez dira nekatzen, egun osoa ematen dute zerbait egiten: etxetik lanera, lanetik etxera, umearen bila, musika eskolara, kafea hartzera, paseatzera, mendira, parkera, bizikletan ibiltzera... Mugimendu etengabea da herria. Ondorioz, egun lasaia aurrekusten nuen, terrazaren batean edo bankuetan eseri eta jendearen harat-honatei adi egoteko modukoa. Akats bat litzateke Pirisen paraderoaz zuzenean galdezka hastea, jendea urduritzea baino ez nuke lortuko.

Hasieratik begiz joa nuen herrian alderrai ibili ohi den adin ertaineko gizon bat, argala, txikia, ile urdinekoa: Jabitxo. Batetik bestera zelan mugitzen den ikusita, aliatu ona izan daiteke, ala susmagarri galanta. Herri osoa kontrolpean du, eta guzti-guztiek agurtzen dute. “Kaixo” alegreak botatzen ditu hirutik bi, eta pertsonaren izena jarraian, “Kaixo, Maria Jesus”, “Kaixo, Nekane”, “Kaixo, Peru”. Batzuetan unerren bat ere egoten da geldirik, inoiz ez berrogei segundotik gora.

Egonean adi egoteko plana geroko utzita, jarraipen luzea egin diot herriko kaleetan barna. Foru Plazatik Okerra kalera, handik Laranjadi plazara Portaletik pasata, ondoren Foru Plazara berriz, Erdikalean behera Portale tabernara. Bertan hamabi minutu inguru eman ditugu, Jabitxo terrazan jendearekin hizketan, ni ate ondoan mostoa hartzen berari begirik kendu gabe. Aldi berean bezero-tabernari hizketaldietara bilduta nuen belarria, eta solasaldia opor pandemikoen gai interesgarrira lerratzen ari zenean konturatu naiz susmagarriak ihes egin didala.

Atzeko terraza zeharkatu, ezkerretara egin, eta Gurutze kalean jo dut begiz haren itzal argala. Frontoi zaharrera jo du, hogeita hamazazpi segundo eman ditu eserita frontenisean ari ziren gaztetxo bi animatzen, “Aupa, Alaia” eta “Aupa, Ane”. Ondoren frontisaren atzeko kalekatik egin du Manuel Uztapide plazara. Bertako jolas lekuan zeuden gurasoak eta umeren bat agurtu ditu plazari eman dizkion bizpahiru bueltetan. Halako batean Enekosauztegitik gora egin du, eta Arteaga karrikako espaloitik jo du Arocena pareraraino. Markesina ondoko eskailerak jaitsi, eta San Joanerako tunela hartu beharrean ezkerretara jo du Gesalagan barna, sastrakak jandako hotelaren hesia bukatzen den tokian Zubimusura jaisteko.

Zren baitan lotarako herria dirudi Zubimusuk bere luze-zabalean, etxeak garajeak kotxeak isiltasuna ezker-eskuin. Une horretan konturatu naiz ez zuela inongo zentzurik egiten ari nintzenak, aspaldi konturatuko zen zelatan nenbilkiola, baina ez nuen segika jarraitu beste irtenbiderik. Ordu erdi luzez erridikulua egiten ari zarela konturatzen zarenean, ba al dago erridikulua egiten jarraitzea ez den beste aukera duinik, ala? Jabitxok ez du erritmoa aldatzeko zirkinik egin, eskuineko zangoa ia saltoka zeraman, umore onaren seinale. Kalea osorik zeharkatu eta ezkerrean dagoen telefono kabina urdinkararen aurrean gelditu da. Ezin nuen sinetsi, kabinok aspaldi kendu zituztelakoan nengoen, hirian ez da horrelakorik dagoeneko; telefonoa eta guzti dauka, gainera. Hasierako harriduraren ostean, azkar erabaki dut aspaldi isildutako kabina mutututako sortzaile batekin hitz egiteko bide aproposena izan daitekeela. Txalo egiteko zorian izan naiz, baina azken unean pultsioa saihestu eta auto baten atzean gorde naiz handik bi metrora.

Txanpon pareta sartu eta telefono zenbaki bat sakatu du. Hotsekin trebea banaiz ere, oraindik ez naiz zenbaki-tekla bakoitzari dagokion soinua atzemateko gauza. Isiltasuna solaskide lukeen edozeinek berba egingo lukeen bezala mintzatu da, mutu eta labur: “Bai”, fufu, “bai, ulertuta”, fufufufu. Minutu bakarreko hizketaldia izan da, txanponak agortu zaizkion arte. Argi zegoen Jabitxok zerbait zuela esku artean.

Ondoren beste hamaika kale eta bazter zapaldu ditugu, bera aurrean eta ni beti bospasei metroko segurtasun tartea utzita. Zurtz eginda nengoen, baina susmagarriaren pausoa ez zen nekerik ageri. Une

batean errepidea gurutzatu eta kanposanturantz egin du, bertan zigarro bat erre eta erdigunera itzultzeko. Gero eta argiago neukan ni nekatzearren ari zela zentzubako zidorretan, ez da posible egunero noraeza iparrorratz duen halako ibilbiderik egitea. Pazientzia galtzen ari nintzen. Une batean Portaletik Toribio Altzagan behera egin dugu, eta zahar etxe aurreko parkean eseri da. Ez neukan aterabiderik, susmagarria galduko ez banuen bere aurretik pasatu behar nintzen derrigor.

Ondoan jesarri natzaio eta zigarro bat eskaini. Beste bat piztu dut niretzako.

—Kaixo! —bigarren silaban asko goratu du ahotsa, “kaixo”, ni herrikoa zu kanpotarra esan nahiko balu bezala.

—Bai, eguerdion. Zer moduz paseoa?

—Ez zekiat, hik esango didak. Asko nekatu al haiz?

—Bueno. Fisikoki nekatu baino gehiago dantzan dut burua. Ez nekien horrenbeste asfalto zegoenik herri honetan.

—Hori eta gehiago.

—Ez al zara nekatzen?

—Zertarako nekatu? Euria ari duenean nekatzen nauk, baina orduan ere kalera.

—Eta aspertu?

—Ez nauk aspertzen, herriko bazter guztiak ezagutzen ditiat. Ezagutuko ez banitu beharbada bai, baina ezagututa ez nauk aspertzen. Gainera, gustuko diat haietatik ibili eta jendea agurtzea, egunero jende bera agurtzea, egunez egun nola aldatzen diren eta haien aurpegi bidez ni nola aldatzen naizen ikustea.

—Eta Piris, aldatu al da Piris?

—Musikaria? Fisikoki pixka bat, ez gehiegi. Ile zuriren bat akaso. Betiko urdea izaten jarraitzen dik.

Zigarrokina lurraren kontra itzali, ukabil barruan gorde eta jaiki egin da. Bidean behera egin du, industrialdera, bankua niretzat bakar-bakarrik utzita. Besoak luze zabaldu eta ukondoak bermatu ditu bizkaraldean. Siku gelditu naiz.

Sararen lau deiek esnatu naute, dei bakoitzak apur bat gehiago. Bosgarrenean hartu diot. “Mutuen bidea” izenburua duen oharra plazaratu dute sare sozialetan Fermin Muguruzak eta beste zortzi musikaririk. Isiltasunaren aldeko hautua egin eta EHko beste sortzaileak ere desobedientzia kultural eta demokratikoaren bidea urratzera animatu dituzte.

MUTUALDIA gogor jotzen ari da. Sarak aipatutakoaren arabera, dagoeneko twitterren badira sortzaile gisa euren azken hitzak sinatu dituzten hogeit hamar lagunetik gora: idazleak, dantzariak, koreografoak, artista plastikoak, musikari andana, zinema zuzendariak. Guztiek euren sormen esparrua darabilte agur esateko. Bateria-jole batek, ezizenez Mutua, hiru orduko bideo bat grabatu du: bera azaltzen da bateriaren gibelean isil demonio, musikaririk jo gabe, eta pixkanaka bere irudia lausotzen hasten da isiltasun abisalaren erdian, 87. minutuan osorik desagertzen den arte. Bateria kolpeek areagotutako hots klaustrofobikoek hartzen dute hurrengo ordu eta erdia. Mututze konpultsibo hori jasanezina bilakatzen zaio ikus-entzuleari, zeresana eta ezinegona sortu ditu sare sozialetan.

Instagramen mutualdiaren aldeko bertso saio baten kartela iragarri dute. Ako frontoian izango da, eta bertsolarien aurpegiak ahoak estaltzen dizkien zinta beltzez ageri dira. Ahostar Isilpek egingo omen ditu

gai-jartzaile lanak, eta ordubeteen agortu dira sarrera guztiak. Bakarrizketa mutuak ere antolatu dituzte zenbait herritan.

Manifestuak jokoz kanpo utzi du Kultura sailburua. Goizean gaiaren inguruko iritzia eskatu diote Heraclio Fournier museoaren eraberritze lanen osteko berrinaugurazio ekitaldian. Intxaurrendietaren ustez ez da kontua bere onetik ateratzeko unea, gaiak hausnarketa luze bezain sakona eskatzen du, baina aurreratatu du bere esku dagoen guztia egingo duela sortzaile horiek ahotsa berreskura dezaten.

Konspirazio moduko bat, Sistemak euskal kulturgintzaren ahotsak itotzeko jukutria antolatua, goitik beherako eraso. Asteak daramatzat esaten Pirisen isilaldiaren atzean kontu potoloren bat dagoela, ezin izan duela bere kabuz mututzea erabaki, eta azkenean argitu da kontua. Edo behintzat argi printza batzuk azaleratu dira. "Garairik latzenetan ere inork ez gintuen isildu. Adierazpen askatasunaren kontrako hamaika erasoaldi gogor bizi izan ditugu, zentsura eta boikota pentsatzen eta sentitzen genuena esan eta sentitze hutsagatik. Oraingo hau, baina, latzagoa da, gure amesgaizto makurrenetan ere ez genuen horrelako zerbait espero. Mututzeko garaia da, lagunok". Muguruza eta besteen adierazpenak ez du zalantzarako tarterik uzten. Piris aurkitu behar dut lehenbailehen.

LANALDI OSO BAT eman dut Zko gaztetxea zaintzen. Mutualdiaren gaineko asanblada informatibo bat deitu dute arratsalderako. Seguru nengoen Piris bertaratuko zela, beti izan da asanblearioa.

Mututasunak eztanda egin duenetik, kulturgileak ahotsa galtzera animatzen dituzten kartel mutuak areagotu dira bazterrotan. Urduri eman dut egun osoa, ez nekien zer esango nion euskal musikaren punkirik handienari, punkaren etiketari muzin egin baina aldi berean bizi-filosofia hori EHn bizirik mantendu duen bakarrari. Nola eman lehenengo pausoa, zer esan egin iradoki hasieratik erakargarri izateko, batik bat aurrean duzuna sortzaile profesionala bada. Kikildu egiten naiz pentsatze hutsarekin.

Benetan kezkatzen ninduen ez zen Pirisen erantzuna, beti irudikatu dut mespretxu aurpegiz buelta eman eta bizkarra erakusten, baizik eta zenbatekoa izango zen gu bion arteko distantziaren arrakala. Sarak gomendatuta, Harkaitz Canoren ipuin bat irakurri dut. Narratzailea, kazetaria bera, idazteari utzi dion euskal idazle baten bila joan da irla batera. Behin idazlea aurkitu eta desagertzearen arrazoiez galdetuta, ezpalik gabeko erantzuna jasoko du trukean: "Nahikoa buru-argia izan beharra dago horretarako ere, aukeratzeko zein den norbere garaia eta bertan planto egiteko, edo bertara bidaiatzeko denboran atzera, ez baita beti gustukoa eta dagokiguna gu bizi garen sasoi bera izaten. Ez dugu zertan gure garaiko izan, ez heroi eta ez kaletar, ez gure garaia eta baloreen garaikide ere. Egon gaitezke atzeratuta edo aurreratuta, eta akats larria eta galera alferra litzateke gure sasoi bizitzen setatzea hori jakinik". Pirisi antzeko ero-haizeak ematearen beldur naiz, ezingo genuke konektatu. Oraingo ez dut dimentsio horretara iristeko gaitasunik. Zortzi ordu eman ditut beldur horietan murgilduta. Arratsaldeak luze joko zuela aurreikusita, laguntza eskatu diet Jabitxori eta Margari. Lehenak "juju" batekin erantzun du, "ez dut egiteko hoberik" esango lukeenak bezala. Marga ez zegoen eroso, zaharregi dagoela asanbladetarako eta ea zer egingo zuen berak hainbeste gazteren artean; historiagilea den neurrian berak ere zeresana baduela argudiatuta konbentzitu dut, onartezina litzatekeela Zko belaunaldi oso bat isiltzen uztea, galera historiografiko itzela. Baiezkoa eman du azkenean. Jabitxo plazan ibili da bueltaka, eta ni gaztetxe azpiko tabernan, jubilatuenan, paisaiarekin mimetizatzen, eztulka eta eztulka zahar plantak egiten, baina adi demonio. Arraroa bada ere,

Zko gaztetxea jubilatuen taberna goian dago, eraikin transbertsal eta inklusiboa inondik ere. Piris ez da agertu, segada usainduko zuen.

\* \* \*

NI ZN IZATEA ez da kointzidentzia hutsa. Pirisek Z hautatu izana ez da zori kontua. Z Z izatea ez da dirudien apeta.

Sarritan txoritan nabilela ematen du. Egonaldiaren zazpigarren egunean jakin dut Z herri musikaria dela. Herriaren tamainarako antzerki mugimendua ere ez da nolana hikoia, baina Zrrek batez ere musika doinuaz hitz egiten diote munduari. Musika eskolan aritutakoak dira adin batetik beherako herritar gehienak, baina hortik aurrera askok eta askok eman duten pausoak bihurtzen du Z musikaren erdigune txiki. Musika taldeen eta musikari profesionalen zerrenda luzeak zein herriak musika bizitzeko duen modu bereziak isiltasunaren aurkako erresistentziaren maparen erdigunean kokatzen dute Z, edo hala beharko luke behintzat. Piris hemen bizitzea ez da kointzidentzia hutsa.

Margak eta Jabitxok lagundu naute herriko hari musikala osatzen. Zk gaur egun ere puntako taldeak ditu musika eszena garaikidean, sonatuenak Grises, Ezpalak eta Rodeo. Haiengana zein Fundizio musika elkartekoengana hurreratu aurretik, baina, taldeok isiltasunarekiko duten jarrera aztertu nahi izan dut, xehe-xehe egin Isiltasun Handira daramaten isiltasun-hautu txikiak. Herrian isiltasun uholdearekin duten elkartasunezko jarrera kontuan hartuta, ez litzateke batere arraroa doinuen plaza hau ere egun batetik bestera isiltzea. Ahaleginak ahalegin, ez dut taxuzko ondoriorik atera. Rodeokoek nahastu naute gehien, sumertar jainko eta jainkosen izenak jartzen dizkiete kantei eta diskoei; horrela ez dago isiltasunarekiko duten harremana ulertuko duenik.

Hala ere, argi dagoena da ez dela kointzidentzia hutsa Piris hemen erori izana. Zergatia jakitea falta zait. Bere garun makabro hori ezagututa, agian isiltasunetik abiatutako musikal bat sortu nahi du Zn, herriko txokoak eszenatoki eta herritar guztiak musikari jarriko dituen ikuskizuna. Aise irudikatzen dut Koioteko terraza danborra besapean duten bezeroz beteta, trumoi hotsa airean dar-dar, eta Laranjadi plazako terraza bakoitza musika tresna batek hartua, biolina saxofoia panderoa, gitarra teklatura harmonika txalaparta Erdikalean, eta Piris isiltasun betean guztia zuzentzen Arocenako kobazulotik, Toriletatik akaso.

“ESAN non amaitzen den. Esan non amaitzen den. Esan non amaitzen den, zuen gezurren itzala” dio Ezpalaken letretako batek. Ikerketarako argigarria iruditzen zait, kulturgileen isiltasun sistematikoa gezurren itzal handi horren aurkako oihua besterik ez da eta. Hala ere, neure aldetik direnak eta ez direnak egingo ditut kulturarik gabeko egunerokotasuna saihesteko. Bide-orri zehatza prestatu dut.

Gaur herriko heavyak zelatatzen aritu naiz, haien talde-jarrera zein den jakin nahian. Heavyz beteta dago herria. Jabitxok diost guztiak ez direla heavyak, asko rockeroak direla, baina ez dut ezberdintasuna bereizten: beltzez jantzita doaz, askok tximak dituzte, musika taldeen kamisetak dituzte soinean gau eta egun; ondorioz heavyak dira, Bilbon heavyak lirateke. Ezetz dio Jabitxok, rockeroen lookak eta heavyenak antzekotasunik badute ere, musika taldeen elastiko beltzak eramateak ez ditu derrigorrez heavy bilakatzen. Entzuten duten musikan dagoela gakoa.



—Ulertzen dut, ezberdintasuna da heavyek nikiez gain prakak ere beltz-beltzak daramatzatela, eta rockeroek praka beltzez gain jeansak edota kamuflajezko praka motzak ere eraman ditzaketela.

—Ez, musika da kontua. Zkoak ez dira bereziki heavyak, batzuk-batzuk bai baina ez asko.

Musika talde askoren izenak bota dizkit boteprontoan: Iron Maiden, Black Sabbath, Judas Priest, Manowar... heavyak dira guztiak.

—Talde horien elastikoarekin erraz identifikatuko duzu heavy bat, kamisetan fijatu. Baina kontuz, EHN Su Ta Gar, Berri Txarrak eta klasikoez gain, izen euskaldunik ez duten euskal talde heavyak ere badaude: Ankhar, Asgarth, Governors, OST.

Urduritzen hasi naiz, ez nuen bat bera ere ezagutzen. Guztiak apuntatu ditut libretan.

—Baina nola ezberdindu ditzaket heavy bat eta rockero bat biek bisera badaramate? Beltzez jantzitako gehienek bisera daramate herri honetan.

—Elastikoen gauza bera, Eñaut. Musika taldeari erreparatu beharko diozu.

Jabixok ez nau batere lagundu, azalpen lausoegiak.

—Hor duzu benetako heavy bat —terrazan jesarri berri zen morroiari so gelditu gara biok. Ondoren zutitu eta irribarre zabala eginez alde egin du lagunak.

Jabixok ozta-ozta agurtu eta heavyaren azterketari lotu natzaio. Inork ez zidan esan erraza izango zenik isiltasunaren aldeko fronte piristarraren ikerketa, baina ez nuen pentsatzen heavy-rockero ezberdintasunen ilunpean eroriko nintzenik. Ez zegoen dudarik, benetako heavya nuen aurrez aurre: Black Sabbathen kepisak gordetako tximak, Governorsen nikia, praka labur beltzak. Musika entzuteko zerabiltzan kaskoen artetik isiltasun metalizatua bereiz nezakeen, tabernako triki-doinuak isilarazteko adina burrundara. Heavyak ez du maite isiltasuna.

Noizean behin begirada egunkaririk altxatu eta nire soarekin egin du topo. Ezikusiarrena egin dut, neure zigarroaren kearen norabidea jarraitzen aritu naiz, edota goiko etxebizitzetan eskegitako arropetatik ihes egindako ur tanten abiadura neurtzen. Heavyak ez zuen oso irekia ematen, gero eta begirada bortitzagoak zuzendu dizkit. Laugarrenarekin batera azaldu da kamareroa zigarro erretzera; Rodeoren kamiseta soinean, rockeroen artean sailkatu dut mentalki.

Ondoren beltzezko beste bi azaldu dira, Dunne eta Tatxersen kamisetekin; bata bisera, besteak tximak. Interneten egindako bilaketa azkarraren arabera, ez bata ez bestea ez dira talde heavyak; horrenbestez, heavy bakarra dut begi bistan, nahiz eta etorri berriek praka motz ilunak izan. Kamareroak jeans motzak ditu soinean, rockero hutsa. Isiltasunaren inguruan ari dira hizketa betean. Beste bat iritsi orduko estresatzen hasi naiz, Anestesiaren kamiseta eta Sixty Sexersen praka motz beltzak: rockeroa. Hemengo martxa ikusita, baliteke herrian horrenbeste heavy ez egotea, Jabixok arrazoi.

Handik gutxira, baina, Motorheaden kamiseta eta Manowarren bisera zeraman bat azaldu da. Ez zetorren bakarrik, Led Zeppelin kamiseta zeraman kaskamotz bat zuen lagun. Bigarren hori errazago identifikatu dut rockeroen taldean, baina lehenak zalantza gehiago eragin dizkit, presazko irtenbidea hautatu eta mistoen artean sailkatu dut.

Mahaia bete ahala nire hasierako anabasak handitzera jo du halabeharrez: heavy argi bat, lau rockero, erdi heavy erdi rockero mistoa eta kamarero rockeroa zeuden, guztiak ere gizonaekoa. Zerbeza iluna nagusi. Une batean beste bi rockero, heavy edo dena delako azaldu dira; ez dute luze iraun, eta eskerrak; batek ZZ Txotx zeraman kamisetan, batek daki zer den hori. Hurrena beste bat azaldu da mahaira, lasaitu egin nau, Ezpalaken kamiseta soinean. Nazkatuta eta buruak eztanda egiteko zorian, Zko gazteria musikazalearen

artean rockeroak nagusi direla erabaki dut behin-behinean, eta jarraian haien konbertsazioari lotu natzaio. Lehentasunak finkatzea da gakoa.

Heavyak irekiagoa zirudien, mahaiaren itxituraren erdian ahotsa goratzen.

—Isiltasunarena ondo zegok, beste borroka mota bat duk, baina ez duk gure borroka. Gu zarata egitekoak gaituk.

—Isil daitezela zaharrak, sar daitezela haiek borroka horretan, kulturetak eta. Orain guri zegokiguk ahotsa goratzea, behingoz entzun gaitzaten —Tatxersek.

—Hau ez duk belaunaldi kontu bat, hau borroka bide estrategiko bat duk, eta guztiok batera isildu ezean ez dik zentzurik borroka planteatze hutsak. Ados, gure momentua duk, toki askotatik deitzen zigutek kontzertuetarako, baina horregatik bakarrik ez gaituk eskirolak izango —Dunnek.

—Ikusten? Atxagaren kopia izan nahi duten kultureta horietako bat ematen dik eta!! Bai, hi hobe hago isilik —heavyak jendetasunez.

—Eta zergatik ez dugu erdibideko bat egiten? Soilik instrumentalak jo, letrarik gabeko kontzertua, ezta gabon esan ere —Ezpalakek.

—Ez duk ideia txarra, balio zezakek: ez diok musika jotzeari uzten, eta aldi berean salaketa egiten duk. Hori baino isiltasun handiagorik... —Motorhead-Manowar mistoak irmo.

—Hori ez duk isiltasuna ez ezer, hori eskirola izatea duk. Eskirol kutrea gainera: ez zioat jotzeari utziko, baina hire borrokaren alde nagok —Dunnek.

—Gutxiago duk ezer ez. Guk ez zekiagu musikarik gabe bizitzen —heavyak irribarretsu.

—Ba aizak, sasoi batean zuzenkorik eta disko berririk ez egotea ez zaidak drama bat iruditzen. Pandemian ere ez al ginen horrela egon? —Anestesia-Sexty Sextersek haserre puntu batez.

—Bai, baina orduan kultura ez zuan mututu, sortzaile guztiak aktibo aritu zituan etxeetatik. Horrek indarra ematen zian —Tatxersek.

—Kultura ez duk mututuko, kultura kontsumitzen jarrai zezakeagu: musika entzun, irakurtzeke ditugun liburu guztiei ekin —Anestesia-Sexty Sextersek besoak zabalik, pazientzia galtzen ari denaren taxuan.

—Hara beste pedantea. Irakurri dudan liburu bakarra OCBkoa duk eta —heavyak irudimentsu.

—Mobida honetan guztian kultura kontsumitu daitekek, ala zer? Nik uste nian dena utzi beharra zegoela

—Led Zeppelinek, kanutoak eragindako isiltasunaren barrenetik.

—Entsegurik ere ez? —mistoak harriduraz.

—Batek zekik, galdetu iezaiok Piris txoro horri. Edo Fermini, hobeto. Haiek jakingo ditek zeintzuk diren jokoaren arauak, eta gu, bitartean, martxarik gabe —Tatxersek.

—Tristea duk gero biren artean ezartzea euskal musikaren bidea —heavyak kopetilun ziniko.

—Piris ez zegok rolo honetan, nahiko deskonektatuta omen zegok. Horixe esan zidaan lehengo egunean, behintzat. Honetaz guztiaz zalantzak omen ditik —Ezpalakek.

—Ez zekiat ba nik, entzun dudanaren arabera ez zebilek urrun, berak proposatu omen zioan kontua Fermini —mistoak erdi ezaxola.

—Kontua ez duk hori, baizik eta zer bozkatuko dugun Gaztetxeko eta Fundizioko asanbladetan. Hutsegite larria iruditzen zaidak isiltasunaren aldekoie babesa ez ematea, berekoikeria hutsa. Kontua ondo doakigula eta, alde batera begiratu behar al dugu? —Dunnek haserre tinko.

—Ni ez nauk taldekoa, baina isiltzea hutsegite larria iruditzen zaidak —heavyak maiestatikoki.

—Ez ezak txorradarik esan. Ezin gaituk gure rollora joan. Bestela zer sinesgarritasun izango luke gure musikak? Eta gure letrek? Borroka horretan zirt edo zart egitea baino ez zegok. Ez zegok grisik —eztabaidara bueltatu den kamareroak.

—Baina bai Grises —heavyak.

—Kontua ez da hain erraza, Dunne jauna —ezin izan diot eutsi, katastrofea saihestu beharra zegoen—. Mututzen zareten momentuan bertan historia idazteari utziko diozue, borrokatu beharrik gabe irabaziko dute.

Heavy-rockero-mistoen begirada guztiak lerratu ditut nigana. Isiltasuna eta lotsa, ez dakit zein zeinen aurretik eta ondoren. Neure burua irudikatu dut segundo erdiz aitzakia itxurako txorradak harilkatzen bata bestearen atzetik, eta hori nahikoa izan da modarekin bat egin eta mututzeko. Garagardoak bukatu eta alde egin dute. Isiltasunaren alde egoteko zarata handiegia ateratzen dutela esatekotan egon naiz.

Neure burua madarikatzen ari nintzen une berean egin dut topo kamareroaren begiradarekin. “Guztiori gertatu izan zaizkigu halakoak” adierazi nahi zuen irribarre rockero bat luzatu dit, baina ezin izan diot begiradari eutsi. Terrazatik hiruzpalau metrora zapatila batzuk zeuden elkarri lotuta farola batetik zintzilik, ni isiltasunari bezala.

ISILDUTAKO kulturgileen manifestuak noraezean utzi nau. “Isiltasuna bide baketsu, demokratiko eta estrategiko gisa”. “Isiltasun-harrikadaka aurre egin kultura hegemoniko aniztasun-baztertzailari”. “Kritikotasuna areagotzeko bidea da isiltasuna, isiltasunetik sortzen den ezinegona barreiatuz besteak autokritika egitera bultzatzea da asmoa”. “Orain arte urratutako bideak, salaketa ozenak, ez du aparteko fruiturik eman; beraz, isil gaitezen, mututze kolektibo militantearen bidez sala dezagun itotzen gaituen egoera”. “Jendarteak kultura behar du bizitzeko, azkar nabarituko dira isiltasunaren ondorioak, azkar eta ozen”. Laburbilduz: orain arte altu hitz eginda entzun ez bagaituzte isil gaitezen, entzungo gaituzte eta. Historialaria naizen aldetik, ez zait estrategiarik eraginkorrena iruditzen. Askoz errazagoa zen zapi palestinoak janzen zituen EH hura ulertzea.

Nire isiltasun kontuetan ere galduta nago oso. Atzo Ztik Arako trenbide zaharraren ibilbideari ekin nion. Lehen bi tuneletan kondentsatutako isiltasuna neure egiten saiatu nintzen. Bertan inor ez zegoela aprobetxatuta alkandora ere kendu nuen prozesua bizkortzeko, baina ezer ez, gehienez ere dardarizoz zipriztindutako isiltasun zikina, irrati diala aldatzean sortzen den horietakoa. Edonola ere, uste dut isiltasunarekin harreman naturalagoa lortzen ari naizela, orain ez nau horrenbeste artegatzen. Lehen urduritasunez blaitzen ninduen, edonon edonorekin edozertaz aritzen nintzen isiltasuna ez entzutearren. Neure buruari agindu diot egunero egingo dudala tuneletako ariketa espirituala, Pirisen isiltasuna harrapatu ezean sikiera Oteizaren hustasuna larruazalean tatuatzeko.

ASPALDI ZEN ez nintzela beste inoren etxean itzartzen. Etxean esan nahi dut. Hiru basokada ur eta ajea biderkatu didan zigarroa behar izan ditut Enara eta Alexenean nengoela konturatzeko. Lasaiago, mugikorra piztu dut, isiltasuna itzali. Enararen mezua, biak joan direla lanera, hartzeko dutxa ederra —toalla bat utzi dit konketan— eta gosaltzeko nahi dudana, hiruretarako etxean izango dela, elkarrekin bazkaldu eta

arratsaldean Jazz-Berrira joateko. Ostia!!! Zimikoak erasan nau berriro, atzo sekulako aurkikuntza egin eta ia-ia pikutara bidali du ajeak.

Urteak ziren Enara ikusi gabe, hamabost gutxienez. Gazte garaiko lagun lagun horietakoa da, koadrillako batekin Sarrikon enpresa edota Leioan kazetaritza, arte ederrak edo soziologia ikasten zuten horietakoa. Ondoko herrikoa da, Alex da Zkoa. Atzo Foru Plazan Jabitxok eta biok aurkitu genuenean ezin izan nion garai hartako Enara borroka-bakalutia ikusteari utzi, nire gogoak etengabe lotzen zuen sasoi batean uste baino hedatuago zegoen azpi-espezie autoktono harekin.

Horrelakoetan ohi denez, elkarrekin zurito bat hartzen hasi eta errondak pilatzen hasi ginen; eta errondekin batera hitzak, bata bestearen atzetik zetozen berbak. Halatan jakin nuen sasoi batean oso famatua izan zen Jazz-Berri diskoteka Zn zegoela, gure Zn, ez ondoko Zn, beti uste izan dudana bezala. Batzuetan ez naiz neure baitakoa. Isiltasunak jandako musika elektronikoaren antro klasiko bat neukan eskura, eta konturatu ere ez.

1990eko hamarkada bukaeran zonalde hau diskotekaz josita zegoen; puntakoak gainera, tartean Txitxarro mitikoa. Aspaldi desagertu zen bakalaoaren euskal ibilbidea, argiak itzali eta bafleak mututu, auskalo zertan ari diren garai hartako DJak. Enarak aipatu zidanez, supermerkatuak edo auto-kontzesionarioak egin dituzte garito haiek zeuden orube gehienetan, zutik dauden apurrak sitsak janda omen, Jazz-Berri bezala. Ikerketalerro argia nuen muturren aurrean, jakina baitzen Piris eta garai hartako rockero asko usu ibiltzen zirela Txitxarrotik-eta, parranda gogoari men egin eta musika azken putz bihurtuta; lotura argia zegoen aldarrikapenezko doinuen eta dantzarako musika elektronikoaren artean, ETak ezandarazi zuen arte.

Ajerako sendagarri gertatu zaidan baina-purea eta xerra bazkaldu ostean, zuzenean egin dugu ABra. Ztik bezala, sarritan pasatu izan naiz Jazz-Berriren aurretik ere, baina ez naiz bertan gelditu. Ate nagusitik beharrean, sastrakaz eta grafitiz betetako atzeko atetik sartu gara isiltasunaren errainura. Sinesgaitza egiten da itoginek soilik urratzen duten isiltasunean bildutako zakarrontzi hau behiala musika elektronikoaren paradisu izan zela.

Sartu bezain pronto damutu naiz, teilatua erortzear dago, tokiak ez dirudi batere segurua. Sekulako arrakalak teilatuan, itoginen tantek sortutako hotsak ondo emanen luke garai bateko techno psikodelikoaren jaialdian. “Bump, bump, bump!”. Plastiko eta zakarra nonahi, lila eta horiz pintatutako hormek ez dute larritasun sentsazioa baretzen. Diskotekako areto txikian barna, urdinez eta horiz pintatutako horma gehiago. Jazz-Berriren logotipoari J falta. Barra gainean auskalo noizko coca-cola botila, jabeak edan zuen azkena garitoari agur esateko, ez zuen alkoholik aukeratu, despedidak hobe hotzean eta anestesikorik gabe, gizona dagokien eran. Barra nahikoa egoera onean, botilei eusteko goiko apal eta guzti. DJaren kabinatik ateratzean malko ttipika hurreratu zait laguna:

—Zenbat arratsalde eder Stationen! Bixentek bazuen guztiok dantzan jartzeko dohain berezia —malkoetz beste egin nahian dantzan hasi da sastar artean—. “Tukutuku-tukutuku”. Bumping musikaren tenplua zen hau. Ba al zenekien?

—Horixe irakurri dut interneten, baina niretzat berdina dira bariante guztiak. “Patun-patun, patun-patun”

—dantza robotizatuari ekin diot, ez nintzen laguna baino gutxiago izango.

—Mozolo, nola izango dira ba guztiak berdina?

Garagardo eta coca-cola kaxa hutsak lurrean. Izkina batean komun klaustrofobikoak ezker-eskuin pixontzi eta komun-ontzirik gabe, urak aspaldi egin zuen bere buruaz beste tokitxo hauetan, baita antroa martxan zegoenean ere. Botila txikiak lerrokatuta banku baten gainean, lauzpabost, techno marrazki klasikoan

horma-irudiak koheteak hiria hortzak OVNIak, edari kaxa gehiago lurrean. Sukalde bat barra atzean, sinestezina.

—Ai amigo, topikoak erraz apurtzen ziren toki hauetan. Garai gogorak izan ziren, baina ze ondo pasatzen genuen.

Kable solteak sukaldeko hormatik zintzilik, segur aski hor entxufatuko zuten beren burua denbora gehiago irauteko zutik. Jakiak manipulatzeko mostradorearen gainean palangana bat eta barruan zarama-poltsen erroilua, norbaitek kakatza hau garbitu nahi izan duen froga argia, borondatea da garrantzitsuena, Gora Jazz-Berri. “Bump, bump, bump!”. Edari kaxa gehiago zoruan, biltegia, botila hutsez betetako hiru kaxa, kaxa gehiago, kaxa gehiago pasillo estu batean, bi pauso, beste hiru kaxa bata bestearen gainean eta beste bat azpikoaren ondoan, hiru pauso, beste kaxa bat, zeinek esan zuen bakalutiek ez zutela alkoholik edaten! Beste kaxa bat. “Patun-patun, patun-patun”. Topikoaren arabera ura baino ez zuten edaten, beste hiru kaxa Heineken, entxufe irtenak, hori bai, ederki entxufatzen ziren, kaxa batekin estropezu egin eta ia lurrera.

—Ikusten al dituzu kaiola horiek? —dantzaleku zentrala behar duenaren begiratokian dago laguna, bertara hurreratu naiz—. Gogoak kioletan izaten zituzten. Gaurtik begiratuta terriblea da, matxiruloa goitik behera, nazkagarria!

Ikusmiran dugun kakatzak zigarro bat merezi du. Lagunari bat eskaini eta beste bat piztu dut.

—Mendiko prakekin eta riñonerarekin ere etorriko zen bat baino gehiago...

—Ajajajajaja!!! Gutako asko. Ez genuen gehiegizko lanik hartzen apain joateko: elastiko zuri bat, marra urdin eta horiak zituen sudadera kantosoren bat eta aurrera. Betiko topikoa da errebaletako bakaletak soilik ibiltzen zirela horrelako antroetan, eta horrek amorrua ematen dit. Orduan asko eta asko ibiltzen ginen honelakoetan sartu eta sartu, ez bakarrik erdaldunak. Baserritar racingzaleekin makina bat barre egindakoa naiz, ederto pasatzen nuen haiekin aparkalekuetan edozer sartzen; umore berezia zuten, bizia. Gaupasa goizik politenak Ako Xoxoten egin ditut, baserri-antro haren aurrean barre eta barre horrelako elementuekin. Inoxen ondoko tabernetan ere barre galantak egindakoak gara, sekulako pasararekin solomo bokadilloa jaten saiatzen ziren piztia haiek. Hori bai, txarrenak txirrindulariak izaten ziren, lehen marrak sartzen hasi eta mundua haiena zela uste zutenak —gorroto biziaren punttua nabari zaio begietan.

Baranda lilaren azpian dantzaleku nagusiko lurra hondoratuta, gu bertan gaudela teilatua erortzen ez bada pozik. Enara, ni ez naiz horra behera jaitsiko. Lasai mozolo, ez zaigu ezer gertatuko, ederki ezagutzen dut hau, ez nuen alferrik eman gaztaroa bertan. Begira nola dagoen teilatua, ai ama, alde egitea ez da aukera bat, Eñaut. “Bump, bump, bump!”. Teilatutik dindilizka dauden kable irtenek estalaktita klaustrofobikoak dirudite. Hesiak lurrean, gogoen ziegak, estalaktita gehiago, bere garaian ustez anplifikadoreen kaxa izandako metal handi kakaztoak ez du isiltasuna hausteko beste watiorik, “tukutuku-tukutuku”. Zenbat arratsalde on Ivanjazz eta DJ Grekekin. Edari kaxen hustasuna, kaxarik gabeko hustasuna, berriro diot: nork esan zuen pastilleroek ez zutela alkoholik edaten. “Tukutuku-tukutuku”. Gainalde horixka duen barra luze lila, hainbeste dantzaren dantzaz argaldutako kañeroen eskeletoak, teilak lurrean, zutabe flakatuak, ni banoa, “Bump, bump, bump!”.

Kalera irten eta errepedeko zaratak biziberritu nau, ezin nuen jasan techno doinu kadukatuen isiltasun kondentsatua.

URTE HAIETAN Jarraiko hainbat militante erori ziren kale borrokako ekintzak leporatuta, eta sarekada potolo batzuek droga trapitxtoa zuten iturburu. Hortik tiraka eta hainbat amarru erabiliz, Guardia Zibilak gazte hustu zituen herrialdeko eskualde batzuk. Hko jaiak, eta H gazterik gabe. Oko jaiak, eta O gazterik gabe. Garai latzak izan ziren ezker abertzaleko ezein erakundetan militatzen zuen jendearentzat, bereziki gazte mugimenduan ari zirenentzat. Nazio mailako estrategia atondu ostean, herrietako asanbladek militantzian droga kontsumoarentzat tarterik ez uztea erabaki zuten, eta ondorioz militante gazte askorentzat ohikoak ziren kontsumo ohiturak hesitu zituzten. Enarak zurrunbiloaren erdian aurkitu zuen bere burua.

“Militantziako kide askorentzat bakaluti drogazalea bilakatu nintzen; errezeloak pizten nituen, ordura arteko gure lanak ezer balio izan ez balu bezala. Presio latzak izan nituen, gurasoak ere tartean sartu zituzten uneren batean. Batez ere zaharren kontuak zirela esaten nion neure buruari, egoera oso larria bazen ere askok zentzuz jokatu genuela ordura arte. Bagenekien alde militantea eta alde golfoa banatzen, nahikoa zen babes neurriak areagotzea. Baina arima bikoitzarenak ez zuela funtzionatzen zioten behin eta berriro, horixe bera pentsatu zuela batek baino gehiagok 1980ko hamarkadan eta guztiek bukatu zutela kanposantuan, ea ez al nintzen osaba Gorkaz gogoratzen. Badakizu? Lagun asko galdu nituen garai hartan, batekoak zein besteokak. Ez ninduten begien aurrean ikusi nahi, eta halako herrarik ez nindutenei ezin nien aurpegira begiratu”.

Txarrena, baina, iristeke zegoen. Droga trafikoari buruzko militanteen jokabidea landu zuen herri-asanblada monografikoan babes-neurriak adostu zituzten. Ondoren, herriko trapitxero eta drogazaleei nazio askapenerako mugimenduaren jarrera jakinaraziko zien lan-talde bat eratzea bozkatu zen; Enara eta beste militante “zalantzarriak” hautatu zituzten zeregin horretarako.

“Baina nor nintzen ni ordura arte lagun eta ezagun izan nituenengana joan eta gaztetxean zein taberna batzuetan droga kontsumoa debekatuta gelditzen zela esateko? Nik neuk kontsumitzen nuen eta! Zer sinesgarritasun nuen nik ordura arte drogak pasatzen zizkidatenean aurrean? Zein nintzen ni? Absurdoa zen goitik behera, ez dago zuk egiten duzun hori besteari debekatzea baino lerdokeria handiagorik. Gurpil zoro batean sartu nintzen: egun batean herriko kamelloengana joan asteburutik aurrera gaztetxean droga kontsumoa debekatuko zela abisatzeko, eta handik bi egunetara pertsona berarengana hurreratu astebururako materiala erostera. Eta are surrealistagoa: kamelloak aurpegi txarra jarri baina droga saldu! Horrek ematen zidan minik handiena, batzuek saldu egiten zidatela gainera, nik-ez-dakit-zer botere banu bezala. Kaka zaharra nintzen eta!!! Lagunei drogen kontrako mitinak eman eta aldi berean niretzat droga erosteko eskatzen nien. Kaka hutsa!”.

Zuzenean edo zeharka, droga berarentzat zela jakitun materiala saltzeari uko egin ziotenak miresten zituen Enarak, kontraesanez jositako amaraunean nolabaiteko koherentziaz jokatzen zuten bakarrak. “Nik ere gauza bera egingo nuke ni bezalako hipokrita bat parean izanda”. Orduan hasi omen zen bere burua egurtzen eta gorrotatzen, baita jarrera hori muturrera eramaten ere. ETak Txitarro zartatu ostean, diskoteketan giroa ezin nahasiago zegoenean, antroz antro erdi-bakarrik ibiltzeari ekin zion, aspaldiko ezagun eta lagunak gorroto begiradak pilatu nahian. Diskotekara sartu behar zuela pentsatze hutsak dardara batean jartzen zion gorputza, baina ezetz esaten ez jakiteagatik ordaindu beharreko bidesaria zela iruditzen zitzaion. Betiko autopistan istripua izan zuen arte.

“Sadiko portatu nintzen neure buruarekin, eta hori ordaindu egiten da. Oraindik ez dakit zer bilatzen nuen: jendea pena ematea segur aski, gogorra nintzela erakustea, antzeko txorradaren bat. Kontua gogoratzen dudana aldiro Oko militanteak gogoratzen ditut. Haiek ez bezala, nik ez nuen ezetz esateko adorerik izan”.

Lagunaren barren-hustea portuetako kontenedore pisutsuak bezala erori da ABko terraza honetara. Begiradarekin konplizitate eta elkartasun keinu bat saiatu dut, azkenean zigarro bat eskaini diot, arratsaldeko enegarrena.

“Badakit zer ari zaren pentsatzen, orain mendizaletasunaren bidez drogatzen naizela. Eta hala da neurri batean, mendiarekiko obsesioak bizi nau orain. Baina behintzat sanoagoa da”.

Belarriak buxatu zaizkit, ez dut ondotik pasatzen diren kotxeen burrunbarik aditzen, ezta elkarriketak iraun bitartean frontoitik zetorren zalaparta ere. Metro gutxitara dagoen Jazz-Berri zaharreko “Bunba, bunba, bunba” baino ez dut aditzen barreneko isiltasunaren ezkerreko birikan, “tukutukutuku-tukutuku-tukutuku”.

PAISAIAREKIN mimetizatzen. Sastarrainen ibili naiz, Ekaingo jatorrizko haitzuloa aurkitu guran. Bailarako natura zoragarriaren erdian tokiz kanpo ematen duen erreplikaren eraikina eskuinetara utzi, eta bidean aurrera galdu egin naiz. Lehendabizi historiaurrekoa izateko modernoegia den hipodromo edota pikadero abandonatu batean agertu naiz, eta ondoren harrobi batean. Ez da harritzekoa, perretxikoa beste harrobi dago inguruotan. Pasieran zebilen emakume batek jarri nau kobaren arrastoan. Mendi magal batean, bi harkaitz handiren artean dago historiaurrerako sarbidea. Inguruan inongo seinalerik ez duen hesia zeharkatu, eta aldapa gora txirrist egin dut pare bat aldiz, ia hankaz gora erortzeraino. Helmuga hogeita hamar pauso eta harkaitzen arteko lau maniobratara banuen ere, kontua lasai hartu eta zigarro bat piztea erabaki dut.

Koba atzez eta Sastarrain aurrez nuela norbaiten begirada sentitu dut lepo gainean. Atoan buelta eman eta harkaitzen aldera begiratu dut. Han zegoen. Bi segundoz gurutzatu dira gure begiradak, ez gehiago, konturatu orduko harkaitzen artetik gora egin du itzal pisutsuak. Istant batez harkaitzetako batekin estropezu egin eta birinbolaka erortzeko zorian egon da. Ez du kirolari estilorik, baina bai polizien aurrean korrika egiten zaildutakoarena. Bera zen, txima horiek eta kepis beltzak ez zuten zalantzarako tarte handirik uzten.

Korrika ekin diot bere atzetik. Gauza horiek ez dira pentsatzen. Ez dut askorik iraun, lehen harkaitzera iristerako lurrera bota dut neure burua, erortzeko beldurrez. Hortik aurrerakoa narras egin dut. Hiruzpalau aldiz oihukatu dut bere izena, oihartzunak ris-ris-ris zekarkidan bueltan. Ihesaldian eroritako harri txikiren bat, bere agerpenaren froga bakar. Eta nire ahotsaren oihartzuna, ris-ris-ris.

Arnasa bere onera etorri ostean beste zigarro bat piztu dut. Emozio gehiegi, egunero ez da desagertu mutu bat ikusten. Egunaren borobiltasuna neurtzen ari nintzenean gogoratu dut Ekain ikusteko hurbildu naizela bertara. Bi harkaitzen artetik kontu handiz igo eta harpearen sarrera agertu zait aurrez aurre, mendiaren kontra eta haitz biren artean. Tenplarioek Sastarrain utzi aurretik presaz egindako kartzela dirudi kobazuloaren atariak. Burdinazko barrotez egindako ateak bete ezin dituen tarteetan historiaurrerako leihoak daude, eta horiez gaindi isiltasunera daramaten eskailera herdoilgaitzak. Barrenak ez nau erasan, ez dut arbasoen hotsik entzun, baina ez da kasualitatea Desagertua haitzulo aurrean egon izana. Milurtetako isiltasuna hobeto aditzearren burua barroteen artetik sartzen saiatu naiz, baina ezin, nire kaskoak tenplarioenak baino diametro handixkoagoa du, nonbait. Etsi beharrean, beste zigarro bat piztu eta harpearen isiltasuna xurgatzen saiatu naiz.

LANDETXEKO ugazabaren neba mareatzen aritu naiz. Arkeologoa izaki, leizeen inguruko pilo bat galdera egin dizkiot, Pirisek historiaurreko isiltasunarekin duen harremana ikertze aldera. Zehazki, isiltasun horren ezaugarriengatik galdetu diot, isiltasun betea, betegina edo betearazlea den, berau entzuten duen oro isilarazteko gaitasuna duen, isiltasunarekiko adikzioa sorraraz dezakeen. Berehala despatxatu nau, arkeologiak hotsen gainean ezer gutxi argi dezakeela esanda, edo deus ez. Etnografiak gehiago, egon badagoela hotsak lantzen dituen korronteren bat. Jakin ez baneki bezala. Landetxean etxekotua naukate, aise egin ditzaket nahi beste eta nahi bezalako galderak. Hori abantaila nabarmena da.

Anbuk eta Alaitzek diotenez, noizean behin etortzen omen da rockero hori Aranburura. Atzo bertan egon zen hemen, gu oraintxe gauden mahaian bertan eserita. Beti etortzen da bakarrik; liburu bat eskuan, irakurtzeko plantak egiten dituela esan du Nievesek, irakurri ezertxo ere ez. Konpultsiboki edaten omen du coca-cola, ordubetea hiru bai gutxienez, gero batek daki zenbat egingo duen lo pajaro horrek. Ez du oso gustuko, ez da garbia. Zein zentzutan? Kiratsa dariola, ez dela dutxatzen, que huele. Herri osoko baserrietara ura eramatea kostatzen zaitzaigunarekin, hori ere ikusi behar. Ze baserrian bizi da ba? Hori, inon ez, roulotteren batean edo; ez al da hala, Miguel Angel? Hala entzun diat, bai, azken aldian Erbimutur eta maizter bizi ziren baserri zahar hartatik gertu omen du karabana.



BIGARREN ZATIA

# Burrunba

“HERRI HARTAN isiltasuna kanpotarrentzat bakarrik gordetzen zutela pentsatu nuen”, dio Hamaseigarrenean, aidanez nobelako narratzaileak pasarte batean. Hark, baina, hogeigarren egunean zorrotzen dizkio ertzak Domingo apustulariaren tragediari. Nik, ordea, gaur bete ditut 20 egun, eta ia ez dut aurrerapenik egin. Korapilatuta nauka Pirisen mutualdiaren hariak, ez dago pitzadurarik niretzat soilik gordetzen duten isiltasunean. Eskualdeak apustulari, tratante eta demagileen lurralde izatearen fama badu ere, alferrik bota ditut herriko musika taldeen isilaldiaren gaineko apustuak boz gora tabernetan. Eskerrak ez naizen, nobelakoa bezala, idazle edo kazetari, bestela uzkurrago leudeke nirekin, hori posible bada behintzat.

Kasu egiten didaten gehienak adin batetik gorakoak dira, gehienek ez dute inoiz entzun Pirisen izena. Lurrak, baserriak, mendiak, jauntxoak besterik ez dituzte ahotan, eta arrotza egiten zaie bilbotar bati halakoak kontatzea. Gainera, ez da erraz astegunez harremanak estutzea, opor garaia izanagatik ere ostegunera arte jende gutxi dabil kalean, erraz biltzen dira haien zereginetara.

Lagunak kezkatzen hasiak dira. Aneren deiak jasotzen ditut egunero, itzultzeko eta uzteko bakean Piris, A eta Z, gozatzeko oporrak behar den bezala. Ezin dut kontua bertan behera utzi baina, Piris gero eta hurbilago dut, nabarmena da. Mendik deitu ere ez dit egiten.

Gaur asanblada egin dugu Margak, Jabitxok eta hirurok. Euren ustez ez da erraza ni herriko taldeetan barneratzea. Egia da tabernaren batean paperak galdu ditudala, ehiztarien taldean barneratzearena ere ez zen ideia ona izan, eta heavy-rockeroena edonori gerta dakioken huts txiki bat besterik ez da, baina gehiegizkoa da hankasartze horietatik erreta nagoela ondorioztatzea. Zuzenean Pirisengana jotzea proposatu dute, autokarabanan azaldu eta azalpenak eskatzea. Granadaerreka bueltan omen dabil aspaldion. Gauzak, baina, ez dira horrela egiten, ezin zara norbaiten etxean abisurik gabe azaldu eta dena boteprontoan botatzen hasi: “Aizak, zergatik utzi diok abesteari, zer dela-eta hire mututasun egoskor hari, akabatuta hago edo zer gertatzen zaik”. Are gutxiago aurrean duzuna rock izar handia denean eta gaiaz beste egiten duela dakizunean. Baina lagunak egoskor hutsak dira, eta amore eman dut azkenean. Gainera, haiek dira herrikoak, eurek jakingo dute zer egin behar den eta nola, baina gauzak ez dira bat-batean egiten; horretarako bertsolaria izan beharra dago, eta horiek ere mututzen ari dira azken aldian. Zerbaitegatik izango da.

SAN JOANERAKO tunela hartu eta plazatxotik barrena egin dut arbolapera. Bertako bankuetan zigarroa erre bitartean, Arocena tantaiaren itxura tenebrosoa gozatu dut. Velazquezek Inozentzio X. Aita Santuari egindako erretratuan lortutako efektu bera eragiten du Arocenak Zn, une oro gainean duzu bere soa. Erdikalean zein geltoki zaharrean egon, beti duzu zelatan. Bainuetxeak eta bere granhotelak bereganatzen dute ospea eta itzala, baina benetako itzala, beltzuria, Arocenak egiten du. Jakina da eraikin horrek mugitzen dituela hiri termalaren hariak, bere aldartearen arabeko koloreak ematen dizkiola Zri, noiz

eguzki ederrez printzatutako bazterrak, noiz hain berea duen gristasun berunkara hori... jakina den bezala, hotel zaharraren apetak atzeratzen du eguzkiaren etorrera Zn. Gainera, ez da kontu berria Arocena beti lerratu izan dela Zren aurkako Aaide Nagusiekin.

Ongi pentsatuta, itzela litzateke Zrrek Arocena gurtzea, hotel bilakatutako ama birjina doloretakoa izatea pasioz eta ikaraz gurtutako fedearen iturri, eta ez Nafarroako erresumaren aurkako ezpata santujalea, ondoko herrikoek bezala. Gogo-jardunetako xuxurla goxoa baino nahiago dut eraikin berbalapikoen itzalen hizkuntza.

Aita Santuari begiradaz agur esan eta aurrera egin dut. Ezkiak atzean utzi eta aldapa beheara bainuetxera bidean, San Millango markesa naizela sentitu dut, ondoan irudimenezko zakur zaragartsu leiala nuela. Ez dakit nola zuen izena Gesalagako urak aurkitu zituen txakurrak, baina Habana jarri diot. Neure ondora etortzeko agindu, eta laztan egin diot bizkarraldean, hazteria osatuta duen egiaztatzeko. Hala da, nire urek ez dute parekorik.

Tunelean barneratu gara biok, herri honek tunelak eraikitzeke duen zaletasuna miretsiz. Tunelak zubiak baitira Zn. Garrasi egin diot Habanari tunelaren isiltasun-maila neurtze aldera, baina apenas entzun da ezer. Txakurrak aurrera egin du zulotik irteteko gosez, gelditzeko agindu diot baina kasurik ez, probak egin nahi nituen, isiltasuna erortzen den puntua dastatu. Korrika atera naiz tuneletik "Habana, Habana, Habana"ka, eta une horretan bizikleta bat eta 100 kiloko morroskoa erori zaizkit gainera tanpez. Itzela hartu dut, bertan gelditu ez naizenean gaitz erdi, eta gainera ziklistak sekulakoak bota dizkit, ea zeri begira nengoen, oinezkoak ez direla handik dabilzan bakarrak. Kasko irrigarriaren azpiko mozoloari pare bat matarlako emateko puntuan egon naiz, baina ez da dotorea Guardia Marinetako zaldun bat jopuak egurtzen hastea, Bixente Lilikoak egingo du nire partez. Zutitu eta ezentzunarena egin diot, nire burua Arocena zaharreko ate birakari bat gehiago zen une horretan. Habanaka ekin diot berriz. Bizikleteroa, aldiz, eroka aritu zait, eroa bera ez balitz bezala, mendiko bizikletan nire bainuetxean zehar.

Minak hartuta ere, aurrera egin dut. Ezkerretara urak harro doaz zubi itxurako eraikinaren azpian. Ibilkeran igarri diot bustita zetorrela. Zorritzto ez bestekoa, zenbat aldiz esan behar dizut ez sartzeko urotara, bezeroei ez zaiela gustatzen ur hauetan animaliak ibiltzerik, eta zu aspaldi sendatu zinen. Lorategira jotzean ezin izan dut tristura saihestu. Belarra hazten ari zaio, zurezko bankuak erdi erorita daude, baina horrek ez dit etxean sentitzea eragozten. Oso gustura egoten naiz hemen, bezeroak zeudenean baino gusturago ia. Inork ez zaitu bere kalaka jarraitzen ari zarelako plantak egitera behartzen, batez ere gaixoek, horiek ziren txarrenak. Ez dago gaixo baten erretolika baino kontu astunagorik. Baina, noski, dirua egin nahi duenak bezeroa jasan behar, hori da gizalegea. Ondoko errepideagatik ez balitz isiltasun betea legoke, lasaitasuna ere ez dago gaizki, denak luke zentzua lehengo txirrindularia pasa eta haserre aurpegiz begiratu izan ez balit. Erdiko hatza atera diot, eroa deitu nau, aurrera jarraitu du, ni neure lasaitasunera.

Habana zaunkaka nabaritu dut bainuetxearen beste aldean. Ibaira eta trenbidera ematen duten banku erorien parera iritsi naizenean aise igarri dut zakurraren zalaparta: ibaia isil demonio zetorren, ez zekarren hotsik, urak errekarriak jotzean egiten duen soinuaren aztarnarik ez. Istantean Piris etorri zait burura, haren isiltasunak inguruko natura isilarazteko duen ahala, eta estutasun horrek 250 urte kendu dizkit kolpera soinetik. Nire eldarnioetan ere irudikatzeke gaitz da hotsik gabeko erreka. Zein litzateke hurrengo pausoa? Urik gabeko erreka baten emari birtuala akaso? Kezkatzen hasi naiz, markesa eta txakurra guztiz desagertzerainoko urduritasunak hartu nau. Une horretan urarekin nahastuta zetorren odol zirrinde bereizi dut, nabarmen. Bainuetxeke atzeko partetik zetorren.

Ate nagusiraino egin dut korrika. Bainuetxea kudeatzen duen enpresaren furgoneta bat zegoen atari aurrean. Ate nagusiari kolpeka lotu natzaio erotu beharrez, didarka hasi naiz herio suhar, atea zabaltzeko eta zabaltzeko, odola irteten dela barrutik, atea zabaltzeko faborez, San Millango markesari atea zabaltzen ez diona benetan damutuko dela mehatxuka. Isiltasun termala erantzun bakar. Une batez langileak bere buruaz beste egin duela otu zait, ondoren bainuetxeko jabea akabatu duela uren iragazkiko helizeetatik pasata. Orduan lasaitzeko agindu diot neure buruari, Eñaut, utzi txorradak alde batera, norbait akabatu izan balute oihuak entzungo zenituen. Zigarroa piztu, mugikorra atera eta interneten bilatu dut bainuetxea kudeatzen duen enpresaren telefonoa. Den-dena bota diot urduri beste aldekoari, bainuetxea odol zirindak suizidio saiakera zuen jefea onik al dago. Lehenengo erantzun nauenak beste batekin jarri nau, eta hark beste batekin eta beste batekin. Azkenean pikutara bidali naute gaztelania galantean, egoteko lasai, furgoneta hor baldin badago ohiko ikuskaritza bat egiten ariko direla, horrek behar duela izan eta lasai egoteko, ez kezkatzeko.

Odol arrastoak, ibai mutua, furgoneta berri abandonatua... Kontuak ez du itxura onik, norbait dabil bainuetxe barretetik isiltasunaren hariak mugitzen. Herrira bidean galdezka hasi natzaio Zko Aita Santuari, seguru zerbait begiztatu duela hotel zaharreko goiko pisuetatik. Inozentzio X.ak begiratu bai, baina mutu erantzun dit.

\* \* \*

KULTURGILE MUTUEK isiltasun birari ekin diote, ofizio duina izateko eskubidea helburu. Isiltasun Tour 2022 horrek ekitaldi isilak antolatu ditu EHko hogeita hamar herritan, eta isiltasunaren bidez emango dute euren egoeraren berri. Deialdia egin dutenen artean hainbat aurpegi ezagun, Fermin Muguruza denen komandante; Pirisen sinadura ez da inondik ageri. Mututuen aitzindari eta aldi berean disidente, ez nuen gutxiagorik espero.

Ekimena antolatzeke barne-eztabaidetan gatazka ugari eman dela aipatu dit Sarak. Batzuk itxialdi pandemikoan antolatutako greba digitalaren antzeko formatua sortzearen aldekoak ziren. Beste batzuek, aldiz, kultur egitura administratiboa kolpatzeko ekintzak proposatu dituzte, horientzat isiltasuna ez da aukera bat. Talde minoritario batzuk ere sartu dira eztabaidan, tartean artea kalera eramane eta karrikak erakustareto bilakatzeko proposamena egin duena. Ez bakarrik isilaldian, artea itzalaldian sarrarazteko deia egin dutenak ere badaude. Azken horiek EHko kultur gile orok sarean dituzten edukiak desagerraraztearen aldekoak dira. Beste talde guztiek, baina, berehala baztertu dute proposamena, horrek herritarrak zigortu, euskarazko kultur produktuen kontsumitzailea kaltetu eta Amazoni ateak zabaltzen dizkiolakoan. Bilera horietan zenbait otso bakartik EHko liburudenda handietan egindako ekintzak gaitzetsi zituen gehiengoak, hala nola isilaldiaren kontrako sortzaileen liburu edota diskoen sabotajeak —liburu zehatz baten aleei sei orrialde zehatz kendu dizkiote Iruñeko liburudenda guztietan— edota euskal margolari entzutetsu baten eskulturari Gasteizen egindako pintadak. Totemek bultzatuta, isilaldi mugagabeari eutsiko diote kultur gile gehienek, eta norberaren esku uzten da jardun pribatuan sortzen jarraitu edo ez.

Bitartean, isilaldiaren kontra dauden zenbait idazle eta musikariek kulturaren erresistentetzat jo dute euren burua, eta zorrotz egin dute mugimenduaren kontra gero eta bakanagoak diren iritzi zutabeetan: “Hori ez da isilaldi bat, mutualdiz mozorrotutako greba sektoriala baino”, “Salingerrek barre egingo luke hain ganora gutxiko mutualdiaren aurrean”, “ustezko mutu horiek badute norengandik ikasi, baina eurretari inor ez

da ausartzen mututze kontuetan ere aitzindari izan genuen Jon Miranderen pausoak jarraitzen". Sarak dioenez, Kultura Saila da isiltasun aktiboan murgildu den bakarra.

\* \* \*

TUNEL BATETIK besterako bidean, ezkerretara bainuetxearen atzeko aldean dut ikusmiran. Bi ilaratan kokatutako zabor kontenedoreak daude errekararen emaria apurtzen duen hormigoiairenekin; hain justu, hortik behar du lehengo eguneko odol zirrindean iturriak, baina ez da hilketaren arrastorik, gutxiago suizidioarenik. Arreta eman dit zaborrontzien aurreko paretaren pintada rupestreak: "Peligro, tubo de gas". Erraz irudika dezaket bainuetxeko kudeatzailea langile bati pintada egiteko eskatzen, "ona zara horretan, jakin badakit herrian usu egin izan dituzula, baita gure kontra ere. Orain egin bat lanorduetan"; asierako harridura eta zalantza ostean, irribarre maltzurra margotu zaio beharginari ezpain ertzetan. Di-da egin du bere lana, zehatz eta egoki, nahiz eta ez dagoen pintadak gaztelaniaz egitera ohituta. Batek daki, euskara normalizatu ostean pintadek izaera subertsiboa izateko gaztelaniaz idatzi beharko dituztela pentsatu du langile gazteak 1982ko udako goiz sargoritsuan.

Aurrera egin dut bainuetxeak erabilerarik gabe utzitako eraikinak begi bistan eta nahiko gertu izateraino. Kolorerik gabeko kolore hurbiltzen den gristasuna da nagusi, leiho hautsiak eta pitzadura, isiltasunaren aldeko konspiratzaileen arteko ideologo iskanbilatsuenak ere ez luke kuartel jeneraltzat hartuko, gainbeheratsuegi dago.

Aurrera egin ahala, bere sasoian karlisten eta aristokraten biltoki eder izandako lorategiaren bukaerara iritsi naiz, eta bertan frontoi abangoardista dut begi bistan. Z pilotalekuz betea dago, baina hau zeharo berezia da: bi pareta eta erdiko, U formaduna, ezker hormaren laurdena baino ez du, triparetak egiteko lain. Fausto Gaiztarro arkitekto falangistak bezero VIPen pilota trebezietara moldatuko zen frontoi bat eraikitzeke enkargua jaso zuen, baita egoki moldatu ere. Zertarako ezker pareta oso bat, erabiltzaile guztiak eskuinekoak dira eta!!!

Burutazio logiko horri jarraiki, ezker pareta laurdenaz, txapadun frontisaz eta eskuin pareta osoaz osatutako pilotalekua eraiki zuen Speerren jarraitzaile heterodoxoak. Ez zuen erreboteko hormaren beharrik ikusi, esku-huska txik-txakik nekez egin daitekeelako jakitun. Gainera, Gaiztarrok ondotxo zekien pilotak aukeratzerakoan haiek ez zirela burezur biziak erabiltzearen zale, nahiago zuten betiko materiala, pisua. Eskuin hormak badu bestelako elementu funtzionalik ere, esaterako erdi aldean kokatutako atea, kirolariaren batek ihes egin behar izanez gero esfortzu gehigarri egin ez dezan. Hala ere, pentsatzekoa da ez dela inoiz erabili, eskuinekoak ez dira atzeko atletik irtetearen zale.

Aise irudikatzen dut Francoren min Varela jenerala bolboraz igurtzitako tako bereziak esku ahurretan finkatzen, ondoren preso errepublikanoren baten burezurraz sakea egiteko bigarren koadro eta erditik. Aurrelaria da Armadako ministroa; tantoak berak egin edo ez, beti uzten diote sakea egiten, beti joan baita aurrez eta, egia borobila errate aldera, ea nor ausartzen den atzelari jar dadila esatera. Varelak ezker aldera lerratzen du beti proiektila, hasieratik igar dadila zein den etsaia. Errestolariak txandakatu egin ohi dira, inori ez zaio gustatzen frontoiaren ezkerreko aldean kokatzea, baina armadan ere norbaitek egin behar du lan zikina. Bereziki armadan.

Pilotarien artean maila txikienekoa denez, Alfonso Barra koronelari egokitu zaio orain ere erretoa eramatea, enegarrenez gaurko egunean. Hori bai, eskuinez eraman du sakea, nahikoa irrigarri zaio une oro ezker hegalean egon beharra, gainera erretoak ezkerrez eraman eta besteen txantxak jasan behar izateko.

Barraren pilotakada loratuak bolea saiatzera eraman du Orgaz jenerala, baina eskuin eskua zabal-zabalik zuenean sakakada bat emanda aurreratu zaio Monasterio jenerala, ortopedikoa bezain praktikoa izan den sotamanoa saiatzeko. Ikusleen artean barre txikiak piztu ditu jokaldiak, aspaldikoa bi gerra-gizonen arteko herra. Marinez Anidok gogor eragin dio burezurrari, ezker aldeko letaginak apurtzeraino ia, eta frontoi beteko atzelari bakarrak arazorik gabe bildu du garezurra; Barra besteak baino hobeto moldatzen da pilotan, baina talde gizona da. Tantoa luze doa, eta Monasterioren ezker gantxo tribotario baten ostean, Varelaren so maltzurra nahikoa izan da beste aurrelariak berau agindutzat hartu eta frontoiko atzelari bakarra burezurkadaz burezurkada higitzen hasteko.

Barra izerdi patsetan hasterako, ikusleek euren arteko apustuei ekin diete. Rodezno kondeak erronka, atzelariak ez dituela bost tanto gehiago iraungo, mila duro. Vallengoko kondeak bitxitasunetik jo du dema, hurrengo hiru sakeetatik baietz Barrak bat ezkerrez jaso, 500 pezeta.

Orgaz eta Marinez Anidoren bina pilotakadak hauspoa beteta utzi dute atzelaria, hainbestearaino non azkeneko pilotakadan esku-eskura utzi dion tantoa egiteko eskuin gantxoa Varelari. Guztiek egin dute txalo, pilotariak lehenengo, gerra-gizon noblei dagokien gisan; baita Barrak ere, arnasa hartzeko nahikoa lan badu ere.

Hurrengo tantoari ekin aurretik bere botilero pertsonalarengana jo du jeneral ministroak. Tanto osoan Varela serio animatzen aritu den Manuel Aznarrek badaki pilotaz, ez zen alferrik Etxalarren jaio. Kazetariak hala gomendatuta, burezur aldaketa eskatu du Varelak, pisuagoa nahiago. Luca de Tena kazetariak eusten dion otzaratik bizpahiru burezur hartu eta gorriena aukeratu du.

Luze sakatu du Varelak, sei eta erditik gora egin du botea, baina inori ez zaio bururatu pasa zenik esatea. Barra eskuz nahastu eta ezkerrez egin du errestoa, ikusleen marmarrak hedatu dira lorategian. Varelak eskuin gantxoa saiatu du berriz, atzamarrak burezurraren horzduran trabatu zaizkio. "Diossssss" ozenaren hurrengo, isiltasuna.

Gaurkoz makabrokeria nahiko izan dudala erabaki eta jokoari utzi diot. Ibiliko bidean atzera, bainuetxeko geltokia pasa eta herri alderantz egin dut. Hartxintzarrezko bidean aurrera, gero eta handiago, gero eta distiratsuago Arocena Aita Santua. Bidean eskuinetara sasoi batean futbol zelaia behar zuena dago, belarrak janda, ozta-ozta ezberdintzen dira bankilloak. Hala ere, nahikoa arratsaldeko azken printzen artean esperpentoa bereizteko. Varela eta besteak gola ospatzen ari dira, builaka, elkar besarkatzen. Bankilloan bakar-bakarrik, burumakur ageri da Barra. Ezikusiarrena egin dut, pausoa azkartu eta Lau-Iturrin aurpegia freskatze aldera. Harrohobiz beteta dago herria.

TOKIAN TOKIKO mututze-ekintzek ez dute etenik. Isiltasun Tourrek Zn egingo duen ekitaldiak isiltasunaren mapa herrikoia borobiltzen lagun diezadake, baina bitartean badago zereginik. Gaur kultura mututzearen aldeko kotxe karabana isila egin dute erriko asanbladakoek. Kontu arraroa izan da; megafono eta klaxon-hotsik gabe, kotxeetako leihoetan jarritako afixek soilik ematen zuten aldarrikapenaren berri. Funerariako auto beltz luzanga bakarrik falta zen karabanak hileta emateko. Ibilgailuak Gurutzetik pasatzen ari ziren bitartean, bisaia iluna zuen ondoan nuen idazleak. "Ez dakit, ez dakit, ez dakit", esaten zuen behin eta berriro ahapeka, burua ezker-eskuin mugitzen zuela.

Halako batean bainuetxeko furgoneta zuri zirrinda urdinduna bereizi uste izan dut karabanako ibilgailuen artean. Nabarmena zen, bainuetxeko logotipoa tokiz kanpo zegoen. Zimikoak hartuta, idazle kopetiluna

atzean utzi eta herio betean hasi naiz kotxe artean korrika. Heavyen begirada zurrunen pean iritsi naiz furgonetaren atzealdera, ateari pare bat kolpe eman dizkiot bere pausoa eten nahian. Gidariak, baina, martxa azkartu eta espaloian sartuta aurreratu ditu pare bat auto Gurutze eta Gesalaga batzen dituen aldapatxoan, karabatanik ihes egin eta martxa bizian Gesalagatik Portale aldera jotzeko. Ondoren, ezkerretara egin eta aldapan beheara desagertu da. Eskuin aldeko ispiluaren bidez txima batzuk ikusi uste dizkiot gidariari, aurpegirik ez.

Bitartean, ekintzak isila izateari utzi dio, milaka klaxon-hots erori zaizkit gainera. Orduan konturatu naiz errepide erdian nengoela karabana oztopatzen. "Eroa, eroa, eroa", oihukatu didate, nekatuta daudela nirekin, ez dutela inoiz polizia hain txatxurik ikusi. Nik Pirisekin hitz egin nahi nuela azaldu gura nien, ez nintzela polizia, ikerlaria baizik, baina mututu egin naute klaxon-hots gero eta ozenagoek. Espaloira jo eta duintasunez eutsi diet heavyen begirakune herdoilgaitzei.

Zigarro bat piztu eta errepide nagusitik bainuetxera egin dut pauso azkarrez, furgonetak bide bera egingo zuen jakitun. Bainuetxea ikusmiran izan dudanean, baina, hantxe zegoen furgoneta. Bertara iritsita, aurreko eguneko toki berean zegoen ibilgailua, ez zirudien zentimetro bat bera ere mugitu denik, aurreko gupila sarrerako ataritik 7,98 metrora, atzekoa 8,12ra. Pirisen arrasto isilak doinu rockabillyagoa zuen.

NOLA AZALDU mutil-lagunari azken hiru gauak bainuetxeko lorategian eman ditudala kulturgileen mututzearekin zerikusi zuzena duen furgoneta siniestro bat zaintzen, berak ni erotzat hartu gabe? Batzuetan isiltzea beste aukerarik ez dugu, isiltasunaren kontrako borrokan ari bagara ere.

Gogorrak izan dira azken 72 orduak, bainuetxeko sarbide nagusia eta furgoneta 24 orduz gertutik zaintzeak badu bere lana. Hasiera batean kontrol-dorrea Arocenan kokatzen saiatu nintzen, baina taldekideei ez zitzaien ideia ona iruditu. Margaren ustez 1908ko eraikin bat ez da toki segurua, sabaia edozein unetan eror daiteke. Jabitxok, bere aldetik, zaintza lanak kalean egiteari ematen zion lehentasuna, seguru omen zegoen hotel zaharrean klaustrofobia sentituko zuela eskaileretan gora eta beheara. Beraz, ez zegoen zaintza-postuak bainuetxeko lorategian bertan ezartzea beste aukerarik.

Asanbladan hala erabakita, Jabitxok goizeko txanda egingo zuen pasiera amaigabea, Margak arratsaldekoa liburu bat eskuan eta nik gauekoa ahal bezain duinen. Disimuluz jokatzeko txanda zailena zen gauekoa. Kotxean egiten nituen lehen orduak, baina logaleak jota eta autoko jesarlekuek eragiten didaten bizkarreko mina ezin eramanda, kamuflajezko lo-zakua hartu eta lorategian etzaten nintzen. Zaintza-lanak ez ninduen gehiegi kezkatzen, mugimendu arraroren bat gertatuz gero aise itzartuko nintzen. Bigarren gauean, baina, botiloian ari ziren gazte batzuek zarama bota zidaten gainera, "ero-ero-ero". Orduz geroztik kotxean gelditu eta bizkarra izorratzea beste erremediorik ez dut izan. Txarrena, baina, amesgaiztoak izan dira. Piris eta biok bainuetxe atzeko tuneletan bizi ginela amestu dut bart. Granhotelaren atzeko ur emariari so ematen genuen eguna, odol zirrinden arrastoak arrantzatzen genituen bertako arbolen adarrez osatutako kanaberekin; gauetan tunelean sua piztu eta isiltasunaz elikatzen ginen luzaz. Hizketaldi mutu horietako batean Piris nahikoa zabaltzen ari zen, isiltasunaren aldeko bere hautua azalduko zuela ematen zuen eta, "Bunba!". Udaltzainak kotxeko lehiatilari emandako bunbazoak tanpez itzartu nau. Ea zergatik eman dudan gau osoan bertan, auzokoak kexu direla. Ez nekien zer egin, itzartzeagatik madarikazioka hasi ala udaltzainari musu eman kopeta soilean.

Horiek gorabehera, hiru egun osoko zaintzak ez du taxuzko fruiturik eman: banatzaile despistatuak, txakurrak atariko horman gustura pixa egiten, itxura susmagarriko topografo bat. Pirisek gure pazientzia agortzea du helburu, eta isiltasunak ematen duen lasaitasuna du bere alde.

Hori guztia azaldu behar al nion mutil-lagunari? Hobe zuen etorritako bidetik alde egitea, baita Ane bazter-nahasle horrek ere. Hilabete daramadala deirik eta mezurik erantzun gabe, nire karrera hondatzeko prest ote nagoen, ikasturtea hasi dela dagoeneko eta fakultatean azaltzen ez banaiz unibertsitatetik botako nautela, bidezkoa iruditzen ote zaidan bera horrela tratatzea, ea beste norbaitekin nabilen, Piris hori al dudan maitale berri. Ez da samurra izan Mendiren galdera zalantza leporatze guztiei isiltasunaren bidez erantzutea, baina hobe horrela.

Behin bakarrik urratu dut isiltasuna, Zkoak bukatu bezain pronto etxetik pasa eta trasteak jasoko ditudala esateko. Nazka erantzun bakar. Hobe horrela.

\* \* \*

BADIRA HIRU ASTE Isiltasuna Armagabetzeko Frontea desegin zenetik, bi aste bainuetxeko zaintza lanak utzi nituenetik, eta Sarak temati jarraitzen du, ikusitakoak ikusita beharrezkoa dela ikerketa lerroaren noranzkoa aldatzea, orain isiltasuna Kultura Sailaren teilatupean dagoela eta bide horretatik jarraitzeko. Isiltasuna oparitu diot.

Nekatuegi nago gauza onerako. Ez da kontu ona hiru lau zazpiren lana bakarrak egitea. Kaier honetatik ere desagertu nahi dut. Bataila epikoan aritu gara euskal kulturgintzaren alde, baina batzuetan parte hartze hutsa ez da nahikoa. Agian iritsi da isiltzeko tenorea.

Noiz arte izango naizen Zn galdetu didate tabernan, hain burumakur ikusi naute. Herrian pisu bila ari naizela erantzun diet, Bilbon ez dut lotzen nauen ezer —pentsatu gabe esaten diren gauzak—. Beharbada iritsi da Zrekin guztiz mimetizatze tenorea, bertan betirako isiltzekoa.

\* \* \*

BESTE BEHIN ERE izorratu dit gaua bainuetxe atzeko tuneletako amesgaiztoak. Litro bete ur, orfidal erdia eta hiru zigarroren ondoren lortu dut berriro loak hartzea. Jaiki naizenerako etxeak beren zereginetan zeuden, berandu ez bazen ere. Jantokira jaitsi eta gosaltzeko adorea biltzen saiatu naiz, ondoren logelara ziztu bizian igo eta arratsalde betera arte irakurtzen aritzeko. Ez dut beste ezertarako gogorik. Gela egurastearren balkoiko atea zabaldu eta bezero goiztiarren baten gorputz erdia bistaratu dut lorategian. Dutzatu gabe eta ileak anarkia betean jaitsi naiz beste behin, Anbuk, Nievesek eta Larraitzek nire piurari buruz pentsa dezaketinari segundo erdirik eskaini gabe.

Ogi txigortua gurinez igurzten ari nintzela eman dit abisu Nievesek, kanpoan duzu zure lagun tximaluze hori. Zer? Irakurtzeko plantak egiten ari da orain ere. Nola? Lorategira ematen duten leihoetaraino gerturatu gara eta han zegoen tximaluzea pipatzen, praka motzak eta alkandora berde txunberoa soinean. Nerbio-sistema osoa irauli zait, garuneko isuriak halako zerbait behar du. Gosaltzen bukatu eta logelara igotzeko gogo sortu zait hiruzpalau segundoz, zertara dator hau, kontua finitu da dagoeneko. Nievesek neure beldurra usaindu eta gogor heldu dit besoa. Ogi txigortuaren punta ahoan sartu eta zalantza betean egin dut lorategirainokoa, lehenago ere neure muturren aurrean ihes egina da pajaro eskapista hori.

Sakon egin diot so, inguruko isiltasun guztia hurrupatu beharrez. Egunkarira bilduta bazegoen ere, segur nintzen ikusi nauela. Bisaian zerbaitek adierazten zuen ez zegoela eroso.

—Egun on. Jesar naiteke? —orduan begiratu nau zuzenean estreinakoz, begirada egunkaritik jasota.

—Beharko. Eman duzun pelmadarekin...

—Eñaut Abaroa dut izena, Piris.

—Badakit nor zaren. Eseri lasai, berehala naiz zurekin —egunkarira bildu da berriz; punki diziplinatua nonbait.

—Ez zaitut molestatu nahi, beste uneren batean etor naiteke bestela.

—Nahikoa molestatu duzu dagoeneko. Ederra liatu duzue —egunkaria nire aurrean jarri eta notizia jakin bat markatu du hatzarekin—. Normala iruditzen al zaizu azken astakeria hau?

—“Kulturgileak, pauso bat haratago” —adi eta aztertzaile jarraitu du boz gorako nire irakurketa—. “Mutualdiaren aldeko ekimenak sortzeari uzteko deia egin du. Adierazpen artistikoak jendaurreratzeari uko egiteaz gain, beharrezkoa deritzo sortzaileek sormen-lana egiteari uztea, horrela soilik lortuko baita kontzientziak erasateko mututasun bete”.

—Zertarako hainbeste txorakeria? Herri honetan ezin gaitzke nahi dugun modura isildu, ala? Baimena eskatu behar al da?

—Nik ez daukat zerikusirik mugimendu horrekin, Piris. Are gehiago, berau eragozten saiatu naiz.

—Nola, baina? Nire lasaitasuna zelatatzen.

—Zure isiltasuna, ez da gauza bera. Zergatik isildu zinen jakin nahi nuen, besterik gabe.

—Horiek nire kontuak dira, niri soilik dagozkidanak, ez zuri.

—Ez esan txorradarik, Piris —galtzekorik ez duenaren erasora jo dut—. Ez nekien punkiak intimitatea gordetzearen zale zinetenik. Musika eta letren bitartez bestean intimitatean sartu eta moldatu bai, baina zuena zaindu egin behar da. Barka beza berorrek min eman badiot.

—Begira, ahitu dituzu eroei zor zaizkien bost minutuak —jaiki eta alde egiteko imintzioa egin du, baina ez da guztiz zutitu.

—Lasai, lasai, ez jarri horrela, barkatu —musikariaren egoa apaldu beharrik—. Esan nahi nuena zen zu EH zarela, eta isiltzea erabakitzen duzun neurrian azalpen bat zor diozula EHri.

—Eroa halakoa!!! Ez al dut nahi dudana egiteko eskubiderik? —ihes egiteko imintzio errepikakorrak, egiantzik gabeak—. Isiltzeko beharra badut isildu egingo naiz, eta kitto. Zein da EH nire hautua zalantzan jartzeko? Are gehiago, zer da EH?

—Maitatzen eta borrokatzen erakutsi zenigun hura. Ez al duzu gogoan? —esandakoa onar dezakeenaren keinu balioaniztun bat saiatu du—. Gure herriaren belaunaldi oso baten iruditeria sortzen hainbeste ekarpen egin duenak jakin behar du gero ardurak hartzen. Hainbeste gazte borrokara bultzatu ostean, ez al zaizu normala iruditzen orain gure herriaz duzun irudia jendaurrean azalaraztea?

—Flipatuta hago. Zer zara, AVTko aholkulari kulturala edo halakoren bat?

—Zu isilik egotearen arrazoiak jakin nahi dituen fan arrarito bat, besterik ez. Egia esateko, hamabost urtean ez dut zure musikarik entzun, baina ezin eramana zait zu mutututa egotea, zure letren beharra du EHko gazteria berriak.

—Beraz, hamabost urtean nire musikaz gogoratu ez, eta kakatzen nagoenean agertu zara? Ederra lorpena neurea.

Ezer esan gabe zutitu eta tabernara egin dut bi garagardoren bila. Eskerrik asko lehor batez onartu du edaria. Hurrengo zigarroa piztu eta rockari ekin diot.



—Mutualdiari dagokionez, logikoa iruditzen zait sortzeari uzteko dei hori, hartutako bidearen ondorio kontsekuentea da.

—Txatxukeriak. Sortzaileak sortu egin behar du, sortzeko larria behar fisiko edo mentala baino handiagoa da, berrehun hankako obsesioa. Hori ezin da besterik gabe eten, erakundeek edota etsaiek kasurik egin ez edo zure lana gutxiesten dutelako. Bestelako estrategiak behar ditugu. Gainera, inork ezin du saihestu mentalki sortzen jarraitzea, ez Ferminen ez inork.

—Eta zu, zergatik isildu zara? —pentsatu baino errazagoa izan da urrezko galdera zizelkatzea.

—Joder, ez duzu ezer ulertu —galdaragile begi gorri-gorriak ageri ditu—. EH aldatu egin da, publikoa aldatu egin da, borrokak aldatu egin dira. Gure garaian lehen lerroan zeuden kontuek orain ez dute lehentasunik, eta alderantziz. Feminismoa lehen beste aldarrikapen bat baino ez zen, eta orain harremanak ideologia jokaerak eta bizimodua ulertzeko erak aldatu dizkigu. Ekologia gure borroketan hutsaren hurrengoa izan da, aitzakia hutsa, eta begira orain. Saiatzen naiz egunerokoan aldaketa horiek kokatzen, baina ez da erraza, parametro nobenteroak bizi ditut oraindik, eta bizitza aurrera doa. Niri tokatzen al zait gaur egungo gazteei abestea? Betiko kontuekin txapa eman eta moila jo beharrean, nahiago dut isildu.

Isiltasun bete eta borobila, hanka ez sartzeko zirrikitu gutxi uzten duten horietakoa.

—Ez dut azken mohikanoa izan nahi. Nire belaunaldikoak oholtzan ikusten ditudanean panikoa sentitzen dut, ez dut hor egon nahi.

—Zeharo haserretu nintzen desagertu zinela jakin nuenean. Ez al zenuen ohar bat bidaltzerik? Krisialdi baten ondorioz sasoi baterako oholtzak utziko zenituela esan eta kitto.

—Zera esan behar nuen: kakatzen nago, herri honetako idolo guztiak erori egin zaizkit, ez dakit zeri kantatu, plazak bestelakoak dira orain eta utzi egingo dut sasoi batez. Horrela ondo, Eñaut? No te jode!

—Hori ausardia kontua da, eta zu ausarta izan zara.

—Hori ere bukatu egiten da, neurri batean behintzat. Eta berriz hasteko alfergura handitu. Musika nahi nuena adierazteko bitarteko bat izan da beti, eta orain ez dut ezer esateko.

—Nola ez duzula ezer esateko? Gazteengana iristerik ez baduzu, beti egongo da sikiera belaunaldikideak astintzeko aukera.

—Zertarako, haien bizimodu burgeskoien miseriak haizatzeko? Ez pentsa horretarako gogorik izan ez dudarik, baina gazteei hau-egin-behar-duzue-ka aritzea bezalakoa litzateke, baina bertsio zaharrunon. Maitasunari abestea baino ez zait gelditzen.

Giro isilkarak hartu du lorategia, hirugarren zerbeza husten ari gara.

—Gero eta argiago dut musika oro belaunaldi zehatz bati eta belaunaldi horren garai jakin bati lotuta dagoela. Hortik aurrera jainkoa izateko saiakerak baino ez dira. Eta ni...

—Bale, bale, zu atea zara. Baina behintzat sortuko duzu, zuretzat baino ez bada ere.

—Esan dizut lehen ere, lerdo! Mentalki ezin diot sortzeari utzi, baina ez dut inongo euskarritara biltzen. Zertarako.

—Oso pureta jotzen du horrek denak, Piris.

—Oso pureta naiz orain, Eñaut. Egin kasu, hobe nago isilik.

Hori esan eta berehala mututu gara biok, isiltasuna ahoskatze hutsak berau gozatzeko premia larria sortu izan baligu bezala. Nik hautsi dut, elkarrekin arkumea bazkaltzea proposatzeko. Ezetz, mozkortuta zegoela. Agerian zuen, garagar aparra zerion begien gorri galdaragileari. Handik hiru zigarrora hitz soilez agurtu dugu elkar, beste bat arte, zaindu ahotsa, ez egin erokeriarik, hurrengo bazkaria neure kontu, biok ere halakorik egongo ez dela jakitun.

\* \* \*

ISILTASUNAK egun batetik bestera kolpatzen du ingurua. Ahotsen forma har dezake, beldurrarena, hurrengo pausoa emateko zalantza betearena, krisialdi tankerakoa, obalatu, lila eta horia, San Millango markesaren txakurraren forma ere hartu ohi du batzuetan. Denek diote ezin naizela beti isiltasunari begira egon, baina kontuz, horrek ez du esan nahi goizetik gauera bitzta zarataz bete behar dudarik. Kontuan hartzeko grisak, Zko tonu gris orekariak. Grisa ez baita hitsa.

Gaur Fundizio Fest-era egingo dut, geltoki zaharreko doinu heavy eta rockeroekin mutu-greba pertsonalaren bukaera ospatzera. Bestea ere bukatu da. Sarak diost mutuberrien mugimendua bere pisuz isildu dela, gutxi batzuk omen isiltasunean tematuta jarraitzen dutenak. Gorputza doinuz betetzeko gogotsu nago, baina aurrez mutualdiko Z bakarka agurtzeko beharra dudala esan diot Mendiri, itxaroteko herrian. Kaskoetan Pirisen musika jarrita agurtu ditut hilabete luze honetan bizigarri izan zaizkidan bazterrik: Arocena eta Artetxe, San Joan, bainuetxea eta atzeko tunelak, Lau-iturri, Lili, Sastarrain, kaskoa eta buila eta umorea. Eta A, eta AG, eta AB, eta T eta alfabeto mutuko beste hizki guztiak, denek lehertu dizkirate tinpanoak eta topikoak. Baina herri honetan egon badago auzoez besteko isiltasun eta aberastasunik: Ekain, Astuigaña, Piris, Amalda, Artetxe, Erralla, Arocena, Danbolinzulo, Erlaitz, Urtain... Horiek ere badira alfabeto mutuaren mapan klasifikatu eta itsatsi beharrekoak. Margak badu lana.

Zubiko aldapatik noa herrira bueltan. Mendiren mezua, Laranjadin daude, baina itzulingurua egin eta plaza azkenengoz ikusteko beharra dut. Erdikaletik gora bizpahiru heavyk agurtu naute, kamarero rockeroak ere bai, baina ez ditut entzuten. Ahoa mugitzen nabari ditut, keinu batzuk, baina esaten dutenaren aztarrenik ere ez. Buruarekin baiezkua egin eta aurrera noa. Foru Plazan Silveira andaluzua gerturatu zait, zerbait esan dit, ez diot ulertzen, irribarre urduria baino ezin diot oparitu.

Kezka bizitan barneratu naiz Laranjadin. Ez da posible, larunbat eguerdia eta mututu egin da herria. Jendea egun eta ordu honi dagozkion gauzak egiten ari da, umeak jolasean korrika edo mugikorra eskuan, txikiteoak beti bezala darrai; terrazetakoak elkarrekin hizketan eta builaka ari direla dirudi, poteoari berezkoak zaizkion imintzio etilikoek ez dute etenik. Eta hala ere ez dut kanpoko hotsik aditzen. Piris neure barnetik: "Ez utzi isiltzen, haiek partida irabazten".

Ikaratuta hurreratu naiz lagunak dauden mahaira, deseroso. Uzkur agurtu ditut eta libre dagoen aulkian eseri. Jabitxo eta Marga hitz egiten ari zaizkit, ez ditut ulertzen. Begiradaz adierazi diet ez ditudala ulertzen, haiek ekin eta ekin. Mendik besoa oratu dit lagunei kasu egiteko, ni gero eta urduriago, haiek atzamar potoloa ahora. Basoak erakutsi dizkidanetean ulertu dut edateko zer nahi nuen galdezka ari zirela. "Garagardoa" esan dut ahoz gora, haiek ni ulertzeko itxaropenik gabe. Neure harridurarako Jabitxo jaiki eta tabernara joan da, antza gauetik goizera ikasi dute Zko guztiek isiltasun bidez komunikatzen. Bitartean Alex eta Enara nitaz barrezka igarri ditut, gero eta urduriago nago. Lurrera begira eman dut Jabitxok kaña ekarri arteko tartea, eta begirada altxatzean ia-ia lurrera bota dut tragoa. Orain guztiak ditut begira eta barrezka. Haserretzen ari naiz, isiltasunaren bidez haserre nagoela adierazi diet lagunei. "Kuadrilla, arima faltsu eta hila", Pirisek ozen.

Orduan Enara jaiki eta nigana hurreratu da. Eskuak luzatu eta belarriak zabaldu dizkit.

—Ai, mozolito, hainbeste soinuk ez dizu onik egingo.

Behartutako algaren bidez bildu naiz lagunuen festara, disimuluz musika-kaskoak lurrera bota eta gogotsu zapaltzen nituen bitartean.